

"Final guztiek inportantzia handia dute, baina buruz burukoak berezitasun puntu bat du"



Aitor Elordi bere ibilbideko partidurik garrantzitsuenaren atarian dago. Domekan buruz buruko txapel-dun geratu daitezke Bizkaia frontoian. Irabazi zein galdu, aurtengoa gogoratzeko moduko urtea izango du, binakako txapela jantzi eta lau eta erdikoan hirugarren geratuta. • 20

FOKU



Ekainaren 17ko kargu hartzeekin martxan izango da panorama politiko berria

Politika • Maiatzaren 28ko udal hauteskundeen ondoren, hainbat udaletan aliantzak sortzeko pausoak ematen dabilta. Durangoren, Abadiñoren, Elorrioren, Berrizen eta Zornotzaren kasua da. • 6-7



Ezkurdiko emakumeen taldeak 10 urte

Futbola • Bihar jaialdia egingo dute Tabiran, Ezkurdi emakumeen taldea martxan ipini zutela hamarkada bat bete dela ospatzeko. Futbol partiduak eta solasaldia egingo dituzte. Nerea Oleaga jokalaria eta entrenatzaileak eta Jesus Sabana koordinatzaileak gogoeta egin dute klubaren egoeraz eta etorkizunaz. • 2-3

Gehigarria

"Egoera normal batean, hiru edo lau egun lehenago nahiko pronostiko fidagarria egin daitezke gaur egun"

Ingurumena • Gorka Ormaetxea eta Libe Gaztelurrutia fisikari durangarrak ETBko Eguraldia lantaldeko kideak dira. • 14-15



"Senior taldea Euskal Ligara heltzea eta erreferente izatea gura genuke"



Nerea Oleaga Barrenetxea

Ezkurdiko jokalaria eta entrenatzailea

DURANGO | 2007

Jesus 'Txus' Sabana Bori

Ezkurdiko entrenatzailea eta koordinatzailea

DURANGO | 1978

DURANGO • JONE GUENETXEA

Ezkurdiko nesken futbol taldeak hamarkada bat bete du. Durangoko taldearen familia osoa batu gura dute biharko antolatu duten jaialdian. Emakumeen futbolak jauzi handia eman du eta igartzen da harrobian.

Zelan planteatu duzue urteurrena?

Jesus Sabana: Urteurrena familian pasatzea da klubaren asmoa. Hemendik pasatu diren jokalaria, babesleak, kolaboratzaileak eta koordinatzaileak gonbidatu ditugu. Hemendik pasatu direnentzako eta momentu honetan parte hartzen dabilzanentzako eguna izango da. Guretzat garrantzitsua da jendeak etortzeko eta ikasteko gogoia izatea, eta baita guk futbolaz dakiguna eurei transmititzea ere. Orain arte egon direnak omentzea da gure asmoa, eta hemen jarraitzen dugunok indarrak hartzea aurrera egiteko.

Zer antolatu duzue?

J.S.: 10:00etatik 12:00etara klubeko taldeen arteko partiduak egongo dira. Seniorrek jokalaria ohiekin osaturiko talde baten aurka jokatu dute. 20 bat minutuko partiduak izango dira. 12:00etan, Nerea Iriarte kazetariak dinamizaturiko solasaldia izango dugu. Parte hartzaileak hauek izango ditugu: Jesus Martínez Ezkurdin emakumeen futbola martxan ipini zeneko presidentea, Xabier Arrieta Athleticeko emakumeen taldeko kirol zuzendaria, Matilde Villarchao zuzendaritzako kidea, Irene Ogiña jokalaria ohia eta Athleticeko jokalaria, Irati Martín jokalaria ohia eta Eibarreko jokalaria eta Uxue Guezala Bizkerreko jokalaria.

Ezkurdi, klub modura, osasuntsu dago?

J.S.: Momentu honetan, 300 jokalaria ditugu Ezkurdin, 200 mutil eta 100 neska. Momentu onean gaude. Pandemiaren ondoren neska asko animatu da futbolean. Hala ere, pandemiaren aurretik zailtasunak izan genituen. Urte askoan kostatu egiten zitzaigun lehenengo taldea ateratzea. Txiki-ekin eta kategorietan gorantza doazenekin kalitatean hobetzen ahalegintzen gara.

Zenbat talde dituzue nesketan?

J.S.: Guztira, bost talde ditugu. Lehenengo taldea Bigarren Erregionalean dago. Gazteak 10-11 urtegar sartu daitezke klubean. Baina taldeak ez apurtzen ahalegintzen gara. Izan ere, asko eskoletatik datoz eta han jarraitu ahal badute, hobe da talde haiekin jarraitzea. Izango dute astia hemen jokatzeko. Eskola askogaz hitzarmenak ditugu formakuntza jasotzeko. Eskola askotan taldeak mistoak dira eta

askori kostatu egiten zaie taldeak ateratzea. Gu bagoaz eta neskek ateratzen baditugu, talderik barrik geratu daitezke. Bestalde, Ezkurdi ulertzeko garrantzitsua da jakitea orain 29 urte klub ofizialetatik kanpora geratzen ziren jokalarientzat sortu zutela Ikastolak eta Jesuitak Ezkurdi. Beharrian sozial horri erantzuteko sortu zuten Ezkurdi. Eta orain 10 urte, neskekin berdintzen gertatu zen. Durangalde guztian, Elorrio kenduta, neskek duten talde bakarra da. Etortzen diren denek dute lekua. Inoiz ez diogu inori ezetz esan.

Orain arte egon direnak omentzea da asmoa, eta hemen jarraitzen dugunok indarrak hartzea aurrera egiteko

Ez da erraza nesken futboleko entrenatzaileak topatzea. Horregaitik, harrobia prestatzen gabilta

Nesken futboleko bazegoen aurrerakia, Extremeñoan.

J.S.: Extremeñotik geroz. 2012an desagertzea zihoan eta Ezkurdik hartu gintuen. Nesken haur kategoriako talde batez etorri ginen. Guraso batzuk ere zuzendaritzan sartu ziren eta taldea hazten joan da.

Nerea, zenbat urtegar hasi zinen futboleko?

Nerea Oleaga: Kurutzia geroz ikastolan hasi nintzen futboleko, 9 urtegar. DBHra pasatzerakoan Ezkurdira pasatu nintzen.

Zelakoa izan zen Kurutzia geroz Ezkurdirako saltoa?

N.O.: Kurutzia geroz taldean neska bi geunden. Hasieran beldur apur batez etorri ginen, ez genuelako hemengo taldeko inor ezagutzen, baina jendea behin ezagututa oso gustura gaude. Mutilekin jokatzetik neskekin jokatzera pasatu ginen.

Zein giro duzue taldean?

N.O.: Oso ona. Gainera, beste herri batzuetatik ere etorri dira jokalaria, Gernikatik esate baterako, eta oso ondo konpontzen gara..

Zelako entrenamenduak egiten dituzue?

N.O.: Astean egun bitan entrenatzen gara, martitzen eta eguenean. 19:30etik 21:00etara.

Jarraitzeko asmoa duzu?

N.O.: 18 urtera arte, bai. Unibertsitateagaz ez dakit posible izango den.

Zer ematen dizu futbolak?

N.O.: Txikitatik dut gustuko. Aitak-eta etxean irakatsi didate, eta telebistan ere ikusi dut. Eguneroko ardurak alde batera uzten laguntzen dit, eta ezertan pentsatu barik disfrutatzen dudana momentua izaten da.

Zu hasi zinenetik gauzak asko aldatu dira futboleant?

N.O.: Orain kimuen mailako talde bateko entrenatzailea naiz eta gauzak aldatu egin direla ikusten dut. Askoz ere neska gehiago dago eta hori oso ona da emakumeen futbolerako.

Izan duzue zailtasunik?

J.S.: 2018 inguruan kategoriaz igotzeko zorian egon ginen. Ez genuen helburua lortu eta pandemiaren ondoren asko joan egin ziren. Beharbada larregi zentratuko ginen helburu horretan, baina orain berriro egoera horri aurre egiten ari gara.

Geroago eta erreferente gehiago dago emakumeen futboleant?

N.O.: Bai, azken urtean emakumeen futbolak jauzi handia eman du eta erreferente gehiago dago. Alexia Putellas izan daiteke bat, eta ez bakarrik Messi.

Zeintzuk dira Ezkurdi taldearen erronkak?

J.S.: Formakuntza. Aurten inkesta bat egin dugu eta atera dugun ondorioetariko bat da neskak pozik daudela. Formakuntza gehiago eskatzen digute, kalitate handiagoko entrenamenduak... Ez da erraza nesken futboleko entrenatzaileak topatzea. Ho-

Emakumeen futboleant erreferente gehiago daude. Alexia Putellas izan daiteke bat, eta ez bakarrik Messi

regaitik, harrobia prestatzen gabilta. Nerea bera, jokalaria izateaz gainera, entrenatzen hasi da. Entrenatzaile guztien formakuntza hobetu gura dugu, entrenamenduen kalitatea hobetzeko. Bestalde, taldeko jokalaria nagusiei ere etorkizuna eurak direla ikusarazi gura diegu. Neska entrenatzaile gutxi dago. 2012an hasi ginenean, futbol zelaietan ez zen neska entrenatzaile ikusten, eta orain badaude batzuk. Askok geratzen da egiteko. Eta jokalariek entrenatzaile lana egiten dutenean, hobeto ulertzen gaituzte. Nereak ere ikusiko du hori.



Ezkurdiko nesken taldea partido batean.

Hamarkada bat egin duzue. Hamar urte barru non ikusi gura zenukete taldea?

J.S.: Behetik datozenentzat seniorren taldea erreferente izatea gura genuke. Senior taldea Euskal Ligara heltzea gura genuke.

N.O.: Bai, lehenengo taldea Euskal Ligara heltzea ondo egongo litzateke.

J.S.: Azkenengo urteetan jokalaria batzuk joan egin dira herrian taldea izanda. Inguruan nesken talde erreferente bat izatea lortu gura genuke, hemen gauzak ondo egiten ditugulako.

Jesús, zelan baloratzen duzu nesken taldearen garapena Extremeñon hasi zinenetik gaur egunera arte?

J.S.: Oso positiboa izan da. Urterik urte neska gehiago apuntatzen da. Ligen maila ere igotzen ari da, alde guztietan.

Extremeñoren sasoiak gaur egunera baldintza ezberdinetan jokatzen dute neskek?

J.S.: Gauzak asko aldatu dira. Lehen, ia ez zuten emakumeen futbol partidurik ematen telebistan. Orain, ematen dituzte batzuk, edo San Mamesen ikusten ditugu; bestela, Lezaman. Ikusgarritasun handiagoa dago eta instituzioen aldetik ere babes handiagoa dago. Klubek ere garrantzi handiagoa ematen diote. Lehen, 300 jokalaritik 25 ziren neskak, eta gainerakoak mutilak ziren. Klubaren dedikaziorik gehiena beste aldera joaten zen. Baina orain, klubak aldetik ere babes handia dago. Eta gurasoak ere geroago eta gehiago inplikatu dira. Klub honek guraso boluntarioei eskerrak funtzionatzen du.



Gure ikasleen ahotan

“LEINNen ekintzaile baten eta enpresa baten bizitza erreala bizitzen da”



MIRARI BALANZATEGUI
(Durango)

Lidero Ekintzailea eta Berrikuntza (LEINN) graduoko 3. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

Zergatik aukeratu zenuen LEINN gradua?

Nire herriko ezagun baten bidez izan nuen LEINNen berri. Bikaina iruditu zitzaidan, dena azterketa baten bidez frogatzen den ikasteko sistema tipikoa ez zelako, ahalegina baloratzen beste modu bat baizik. Gurasoekin unibertsitatean egin nahi nuenari buruz hitz egin ondoren, erabaki nuen gradu hau jarraitu nahi nuela, ohiko gradu baten orde.

Nola baloratzen duzu LEINNen izan duzun esperientzia?

Oso modu positiboan. Egia da edozein gradutan une onak eta txarrak izaten direla, baina LEINNen ekintzaile baten eta enpresa baten bizitza erreala bizitzen da. Horregatik, asko baloratzen dut bizi izan dudana hazkunde pertsonala, eta eskertzen ditut erakutsi dizkiguten tresnak.

Mondragon Unibertsitateak zer gustatzen zaizu gehien?

Gustatzen zait graduaren lau urteak ingurune berean pasatzeko aukera izatea, eta aurkezten zaizkigun aukerak, dela idazkaritza jasotzen ditugun mezu elektronikoen bidez, dela foroetan ikas dezakegunaren bidez.

Enpresa bat sortzen duzue hasiera-hasieratik. Nola egiten da hori?

Eratze-prozesurako, unibertsitateak oinarriko kontzeptuak eman zizkigun, eta, nire taldearekin batera, zuzendaritza-batzordearen izena eta prestakuntza aukeratu genituen, enpresa erregistratzeko beharrezko dokumentuak osatzeaz gain. Oso esperientzia aberasgarria izan zen, eta benetako lehen harremana izan genuen enpresa munduarekin.

Zer nolako proiektuak garatu dituzu?

LEINNen eman ditugun hiru urteetan, mota guztietako proiektuak garatu ditugu, janari hondakinak berrerabiltzeki hasi eta surfarekin zerikusia duten produktuarekin. Hala ere, hirugarren urtean, A90º (osasunaren sektorean), Wend (gazteen aisialdian) eta BizivR (musika) bezalako proiektu nagusietan zentratuta gaude.

Zer iruditzen zaizkizu Learning Journey-ak? Izan duzue esperientzia hauek bizitzeko aukerarik?

Nire enpresarekin Berlinera, Costa Ricara, Hego Koreara eta Indiara bidaiatzeko aukera izan dut. Kenya ere bisitatu ahal izan nuen nire kide batzuekin. Esperientzia horiek oso baliotsuak dira, norberaren, taldearen eta LEINNeko ekosistemaren gainean ikasteko aukera ematen baitute.

Etorkizunari begira, zein dira zure planak?

Etorkizun ez hain urrun batean, nire proiektuarekin lanean ikusten dut neure burua, LEINNeko nire kide batekin, hura hazteko eta proiektu jasangarri bihurtzeko ahaleginean.

Pastoral bat eta ikuskizun bat, inauterien, surrandien eta euskal kanten bilakaera erakusteko

Durangoko San Antonio ikastetxeko 90 bat ikasle buru-belarri dabilta ekainaren 8an eszenaratuko dituzten obra bi prestatzen. LH5eko eta DBH4ko ikasleak dira



DBHko 4. mailako 50 ikasle parte hartuko dute 'Kantuaren oinatzetan' ikuskizunean.

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Ikasleatariko batzuk atrezzoak dekoratzeko lanetan dabilta, zuhaitza irudikatuko duen elementuari forma ematen. Beste batzuk oholtza gainean egin beharreko sartu-irtenak koordinatzen; noiz sartu eszenan, zelan irten eszenatik. "Gogoratu ekinaldi batetik besterako tartean oso modu zehatzean egin behar direla sartu-irtenak", oihukatu du baten batek. Erika Uranga da, Loraldia Eskola egitasmoko dinamizatzailea. Bera dabil, ikasleekin batera, antzezlan biak koordinatzen eta zuzentzen. Ekainaren 8a ate-joka dator. Obrak estreinatzeke eguna da. Eta San Agustin ikastetxeko aretoan igaritzen da estreinaldiaren bezperetan egoten den urduritasun hori.

Izan ere, San Antonio ikastetxeko ikasleek obra bi taularatuko dituzte San Agustin Kulturgunean. *Surrandi, surrandi, gaur Durangon nagusi* izeneko pastoralak, eta *Kantuaren oinatzetan* izeneko ikuskizuna.

ren oinatzetan izeneko ikuskizuna. "Pastoralak adierazpen artistiko ugari batzen du. Antzerkia, bertsoa, dantza eta musika, adibidez.

Pastoralean inauterietan buruzko istorio bat kontatuko dute, Zuberoan egiten den eszenaratzeagaz

'Kantuaren oinatzetik' obran euskal musikaren historia batuko dute, Nafarroa Beheretik hasita

Zuberoan erabiltzen diren koplak erabiliko ditugu, baina inauterietan eta surrandien inguruko istorio bat kontatuta. Gidoia Ainhoa Urienek egin du. Bestalde, beste

ikuskitzuna euskal kanten bilakaera kontatuko du, Euskal Herriko lurraldeak igarota", azaldu du Urangak. Nafarroa Beheretik ekingo diote, Bernart Etxepareren ingurua deskribatu eta hark idatzirikiko *Kontrapas* olerkia kantatuta. Ondoren, Zuberoara egingo dute, Matalasen altxamendua irudikatuz. Halantzik joango dira euskal lurraldeetako kantutegia erreparatzen, Bulego taldearen *Irulegiko Eskua* kanta abestu arte. "Bigarren obra hau Itsaso Arrietak idatzi du. Pastoralak Lehen Hezkuntzako 5. mailako 40 ikasle interpretatuko dute. *Kantuaren oinatzetan* ikuskizunean, DBHko 4. mailako 50 ikasle arituko dira", zehaztu du Urangak.

Ikuskizun biak bata bestearen atzetik emango dituzte San Agustin Kulturgunean. 19:00etan taularatuko dute pastoralak, eta hura amaitu eta berehala ikuskizuna. Gonbidapenak Arte eta Historia Museoa eskuratu daitezke.

Julio Aranguena hil da, AEKren euskaltegiatako irakasle beteranoa

Aranguena joan zen domekan hil zen, 61 urte zituela

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Julio Aranguena euskaltzale amorratua zen. 19 urteagaz Durangoko Abarrak euskaltegian euskara ikasten hasi zen, jakin barik leku harek bere bizitzan izango zuen garrantzia. Euskaldun berria izanda, 21 urteagaz euskara eskolak ematen hasi zen. Aranguenaren heriotza kolpe gogorra izan da Durangaldeko AEKren lantaldearentzat, eta baita 40 urteko ibilbidean irakasle izan zuten ikasleentzat ere. "Lankide zoragarria zen. Umore fina zuen eta barre egiteko gogoia kutsatzen zuen horietarikoa zen. Irakasle legez ere, oso ona zen. Pazientzia handia zuen eta hori oso ezaugarri ona da ikasle hasiberriek irakasteko.



Aranguena.

Gainera, asko zekien eta gaitasun handia zuen hori guzti hori ondo irakasteko", gogoratu dute bere lankideek.

Eskualdean elkarretaratzeak egin dituzte Gasteizko hilketa matxista salatzen

Durangon, Elorrion, Zaldibarren eta Iurretan egin dituzte

DURANGALDEA • M.Z.

Joan zen domekan 32 urteko emakume bat hilda topatu zuten Gasteizko apartamentu hotel batean, ondoan bere umea zuela. Azken hau bizirik topatu zuten. Ilun-

tzean, emakumearen bikotekide ohia atxilotu zuten, 34 urteko gizonetako, ustez andrea hiltzea egotzita. Eskualdeko mugimendu feministek deituta, hainbat kontzentrazio egin dute aste honetan.



Zaldibarren martitzenean mobilizatu ziren.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko ekainaren 2a
21. urtea - 938. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Iruri Altzerreka garaitarrak 'Tokado saria' irabazi du Señora bertso sariketan

Sariketako epaileen iritziz, Altzerreka da euren "bihotza gehien hunkitu duen bertsolaria"



Iruri Altzerrekak burukoak jantzi zuen Oñatin jokaturiko finalean. BERTSOA.EUS

GARAI • EKAITZ HERRERA

Beharbada txapela izango da bertsolarietako ikurrik esanguratsuena, baina Señora Sariketako argi utzi du badagoela bertsolarien balioa aitortzeko beste modurik ere. Iruri Altzerreka Martínez da horren lekuko. Bertsolari garaitarrak Tokado saria irabazi du, bera izan delako "publikoaren bihotza gehien hunkitu duen parte hartzailea". Altzerrekak Eli Pagola Apezetxeagaz, Maddi Ane Txopenagaz, Janire Arrizabalaga Munduateagaz, Eli Zaldúa Barquingaz eta Maider Arregi Markuletagaz abestu zuen sariketako finalean, zapatuan, Oñatin (Gipuzkoa). Txoperena eta Arregi ailegatu ziren buruz burukora. Azken honek jantzi zuen sariketako pamela.

Altzerreka "gustura" ibili da finalean. "Bertsoen teknikari dago-kionez, ez zen nire egunik onena izan, baina presiorik barik ibili nintzen, oso lasai. Izan ere, Señora Sariketan beste txapelketa batzuetan saritzen ez direnak baloratzen dira. Bertsoen teknika edo zuzentasuna barik, edukia, gainerako bertsolarietako zaintza eta hartu-emanak baloratzen dira. Horrek guzti horrek eragina du saioko giroan", azaldu du Altzerrekak.

Señora Sariketa orain hiru edizio jaio zen, bertsoen lehia beste era batera lantzeko bokazioagaz. Ohiko arau eta teknikak albo batera utzita, bertsoa transfeminismotik eta espermentazioetik lantzeko tresna modura sortu zuten hainbat emakume bertsolari eta sexu-genero disidentek.

Hamasei pintxoren arteko lehia martxan Zornotzako Jan Alai txapelketan

Lehiaketa domeka eguerdira arte izango da. 1.000 euroko sari bi daude jokoan, besteak beste



Zornotzako kuadrilla bat iazko lehiaketako pintxoetako bat dastatzen.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Egunotan Jan Alai pintxo lehiaketaren edizio berri bat egiten dabilta Zornotzan. Aurten udalerriko 16 taberna dabilta mokatutako finenak eta landuenak prestatzen zornotzarrentzat. Honako hauek dira: Berezi, Venecia, Sharky, Zubi-Ondo eta Brasil (txapelketako gune urdinean daude); Singing Munch, El Cojo, Oasis, Txiri-txiri, Xiberu eta Hogan's (gune horian) eta Harrison, Bizkargi Craft, Leku-berri, Batzokia eta Javi (gune berdean).

Epaimahai tekniko batek halantxik erabakita, pintxorik

onena prestatzen duen tabernariak 1.000 euro irabaziko ditu. Eta bezeroek ere eurentzat pintxorik onena izan dena aukeratu dute. Kasu horretan ere, taberna irabazleak 1.000 euro irabaziko ditu. Ostalaririk profesionalena zein den ere boto bidez aukeratu dute. Onuradunak 250 euro eskuratuko ditu. Azkenik, Zornotzako Dendariak eta Iraunkor elkarteek sari berezi bi emango dituzte. Lehenengoak 30 jateko ontzi zozkatuko ditu bezeroen artean, eta bigarrenak hiru produktu-otzara.

Garaiko jaiak antolatzeko bilera zabala, astelehenean, udaletxean

GARAI • E.H.

Uztailaren amaiera gerturatzeko ari dela eta, Garaiko Udalak Santxau jaiak antolatzeko bilera zabala deitu ditu herritarrek. Batzarra astelehenean egingo dute, ekainaren 5ean, 19:00etan, udaletxean. Iazko dinamika jarraituta, udalak batzar zabalak egin gura ditu, "herritar guztiak jaiak antolatzen parte hartzeko aukera izan dezaten". Iaz, adibidez, dozena bitik gora lagun batu ziren bilkuretan, bai herriko jaiak eta baita auzoetako jaiak ere antolatzeko. Aurten ere dinamika horri eutsi gura diote, bilkuretan proposaturikoak egitarauan islatu daitezkeen.

Hezkuntzarako diru laguntza eskatu daiteke lurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Lurretan zabalik dago 2022/2023 ikasturteko hezkuntza gastuei aurre egiteko diru laguntza eskatzeko epea. Haurtzaindegian, HHn, LHn eta DBHn seme-alabak dituzten familiei zuzenduriko deialdia da, maila horietan eskolatutako seme-alaben hezkuntza gastu orokorrak zati batean ordaintzeko. Ekainaren 14ra arte egin daiteke eskaria, Herritarren Arretarako Zerbitzuan edo udaleko webgunean.

Udalak 10.000 euro ipiniko ditu, adin tarte hauek zehaztuta: Haurreskola (150 euro), HH (45 euro), LH osoa eta DBHko 1. eta 2. maila (45 euro), eta DBHko 3. eta 4. maila (75 euro).

Ekainaren 9an 'Zornotzan Kantuz' egitasmoaren saio berri bat egingo dute

Antolatzaileek herritarrek eta elkarteak deitu dituzte kalera irten eta denek batera euskal kantak abestera



Iaz 500 lagun inguru batu ziren kantuan.


ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Iazko arrakasta ikusita, Zornotzan Kantuz egitasmoa antolatzaileek bigarren edizio bat prestatu dute aurten. Ekainaren 9ari begira herritarrek eta elkarteak deitu dituzte kalera irten eta denek batera euskal kantak abestera. Ibilbide bat prestatu dute horretarako. Venecia kafetegiarekin parean hasiko dira kantuan, 19:30ean, eta ezarria sikatu arte jarraituko dute horrela, ibilbidean aurrera eginda. Xiberu, Oasis, Sukoi eta El Cojo tabernak bisitatu ostean, kantu ibilbidea Pike parkera ailegatu da. Handik Tomasa tabernara joko dute eta han amaituko dute kantaldi ibilitaria.

Antolatzaileek ondo gogoan dute iazko edizioa. Zornotzan Kantuz egitasmoa lehenengo antolatu zuten eta 500 bat herritar batu ziren kantura. "Egundokoa izan zen, jendeak alaitasun handiagaz hartu zuen proposamena", azaldu zuen iaz Iñaki Gonzalezek, egitasmoaren bultzatzaileetarikoa batek.

Ekainaren 17ko kargu hartzeek panorama politiko berri bati hasiera emango diote Durangaldean

Udal askotan aliantzak sortzeko egunak dira; esate baterako, Durangon, Abadiñon, Elorrioren, Berrizen eta Zornotzan



Traña-Matienako frontoia hautesleku bihurtuta.

DURANGALDEA • JONE GUENETXEA

Maiatzaren 28ko hauteskundeen ondoren, eszenatoki berri bat zabaldu da. Horri guztiari gehitu behar zaio Pedro Sanchezek hauteskunde orokorren iragarpena egin zuela biharamunean. Tes-tuinguru horretan, begirada guztiak ekainaren 17ko udaletako kargu hartzeetan ipinita daude.

Datu orokorreari erreparatuz gero, maiatzaren 28ko hauteskundeetan EH Bildurena izan da Durangaldeko zerrendarik bozkatuena, 15.993 boto batuta (aurreko hauteskundeetan baino 977 gehiago). EAJ gertu geratu da, 15.016 botogaz.

Durangoren kasuan, historian lehenengoz, zerrendarik bozkatuena EH Bildurena izan den arren oso posible da Mireia Elkoroiribe heldzea gobernura. Horretarako, zerrendaburu jeltzaleak PSE-EEren eta PPre babesa beharko du.

Abadiñon ikusteko dago aliantzek nor eramango duten udal gobernura. Mikel Urrutiaren (EH Bildu) zerrenda izan da bozkatuena, baina aliantzak beharko lituzke horretarako. Jose Luis Navaroren Abadiñoko Independente Berriak taldearen eta PSE-EEren babesagaz, Mikel Garaizabal jeltzalea ere izan liteke alkate.

Zornotzan, Ainhoa Salterainen (EAJ) alderdiak irabazi du, baina PSE-EEren babes beharko du gobernatzeko.

Atxondon eta Zaldibarren gobernu aldaketa gertatu da. Kasu bietan, jeltzaleek EH Bilduko ze-

rrendaburuei pasatu beharko diete aginte makila. Beraz, Atxondon Xabier Azkaratek Eneritz Agirrerri pasatuko dio lekukoa. Eta Zaldibarren Jose Luis Maiztegik Eneritz Azpitarteri emango dio aginte makila.

Elorrioren kasuan, EH Bildurena izan da zerrendarik bozkatuena, baina EAJk beste eserleku eskuratu dituzte. Beraz, Elkarrekin Podemosen erabakia izango da giltza, beste behin ere. Orain arte, koalizio subiranistaren alde egin dute aurreko legegintzaldietan.

Berrizen, EAJren eta EH Bilduren arteko lehia oso estua izan da. Jeltzaleek hiru botoren aldea ate-

Maiatzaren 28an, EH Bildurena izan da Durangaldeko zerrendarik bozkatuena, 15.993 boto batuta


Abadiñon ikusteko dago aliantzek nor eramango duten udal gobernura, Garaizabal edo Urrutia

ra diote koalizio subiranistari. Beraz, Orlan Isoirden alderdiak (EAJ) PSE-EEren babes beharko du.

Durangaldeko gainerako herrietako udal gobernuetan ez da indar aldaketarik egon, eta, beraz, alkatetzak honela geratu dira: Mallabian Igor Agirre (EAJ), Mañarian Aina Otxotorena (EH Bildu), Otxandion Egoitz Garmendia (EH Bildu), Iurretan Iñaki Totorikaguena (EAJ), Garain Erramun Osa (EAJ) eta Izurtzan Oihane Irastorza (EH Bildu).

Udal hauteskundeak 2023 - Durangaldea

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00



Durangaldeko datu orokorren grafikoa.

Durangoko udalaren etorkizuna aliantzen esku dago

DURANGO • J.G. / E.H.

Durangon, lehenengoz, EH Bildurena izan da zerrendarik bozkatuena, 5.434 botogaz. EAJk 5.081 boto jaso ditu. Baina ez dirudi datu historiko horrek gobernua mantentzeko baliokidionik koalizio subiranistari. Ekainaren 17ra arte ez da jakingo Durangoko Udaleko gobernua Mireia Elkoroiriberen (EAJ) esku geratuko den, baina ematen du PSE-EEren eta PPre botoei eskerrak horrela izan daitekeela. Hauteskundeetako emaitzei dagokienez, PPK orain lau urte galdu zuen eserlekua berreskuratu du. Carlos Garciak (PP) aurrreratu du bere botoari eskerrak EH Bildu "gubernutik aterako" dela, eta, beraz, ematen du EAJk

baduela popularren babes. Gainera, orain legegintzaldi bi EAJk PSE-EEgaz koalizioan gobernatu zuen.

Ika-mika sortu da Herriaren Eskubidearen eta Elkarrekin Podemosen artean

Mireia Elkoroiribek haxe esan zuen hauteskunde gauean: "Emaitzak ematen digu gobernatzeko; aste hau oso garrantzitsua izango da denekin berba egiteko". EH Bilduren mahai politikoa asteon bildu da gainerako alderdiekin egingo duten bilera


erronda prestatzeko eta udal gobernu eskuratzeko.

Hauteskunde osteko eztabaida

Hauteskundeen ondoren, ika-mika sortu da Herriaren Eskubidearen eta Elkarrekin Podemosen artean. Izan ere, orain lau urte elkarregaz aurkeztu baziren ere bakoitza bere aldetik aurkeztu da aurten, eta horrek eragina izan du udalbatzako eserlekuetan. Botoa zatitu egin da eta Herriaren Eskubideak ordezkarri bakarra lortu du; bat bera ere ez Elkarrekin Podemosek. Horrek aldaketa eragin dezake alkatetzan. Herriarren botoa zatitu egin dela eta, alderdi biek elkarri leporatu diote hauteskundeetara batera joan ez eta ondorioz eserleku kopurua galtzearen ardura.

Udal hauteskundeak 2023 - Durango


Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00



Espainiako Estatistika Institutuaren 2023ko datuak.


Udal hauteskundeak 2023 - Abadiño

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00




Udal hauteskundeak 2023 - Atxondo

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00




Udal hauteskundeak 2023 - Berriz

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00




Udal hauteskundeak 2023 - Elorrio

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00




Udal hauteskundeak 2023 - Garai

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00




Udal hauteskundeak 2023 - Iurreta

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00




Udal hauteskundeak 2023 - Izurtza

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00




Udal hauteskundeak 2023 - Mallabia

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00




Udal hauteskundeak 2023 - Mañaria

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00




Udal hauteskundeak 2023 - Otxandio

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00




Udal hauteskundeak 2023 - Zaldibar

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00



Udal hauteskundeak 2023 - Zornotza

Boto kopurua - Eskrutinioa: %100,00



Mallabiko Nekazaritza eta Artisautza Azokak askotariko hamaika postu batuko ditu domekan

Frontoian ipiniko diren saltokien artean Mallabiko lau daude; eguerdian, Gazte Alai taldeak dantza saioa egingo du

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Mallabian ekitaldiz beteriko aste-burua dator. Domekan, esaterako, Nekazaritza eta Artisautza Azoka eta Aitor Elordiren pilotako finala direla eta, goizetik gauera ez da jai girorik faltako kalean.

Nekazaritza eta Artisautza Azokak 10:00etan zabalduko ditu ateak. Aurten hamaika postu ipiniko dituzte Mallabiko pilotalekuan. Lau postu mallabitarrenak dira: gazten postu bi —behi-gaztarena bata, ardi-gaztarena bestea— eta ortuarien eta gozogintzaren postu bana. Durangaldetik, Abadiñoko eta Elorrioko stand bana egongo da; xaboiekin eta argizari-produktuekin lehenengoa, eta belarritako, eraztun eta antzerako produktuekin bigarrena. Ondarria, Tolosa, Mendabia eta Euskal Herriko beste hainbat txokotatik etorriko postuek osatuko dute azoka. 13:00etan, Gazte Alai dantza taldekoek saioa egingo dute pilotalekuan. Bestalde, arratsaldean,

pantaila erraldoi bat ipiniko dute pilotalekuan, Aitor Elordiren buruz buruko finala ikusteko. Gauean harrera egingo diote pilotari mallabitarri.

Abesbatzen kontzertua

Zapatuan ere badago zegas gozatu. Mendibil abesbatzak eta Zornotzako Dizdira ahots taldeak Uda-berriko kontzertua emango dute,

20:00etan, elizan. Pilotako Bizkaia Torneoko partidu profesional bat ere bazegoen aurreikusita zapatu-rako, baina azkenean jaialdi hori ekainaren 16an izango da.



Nekazaritza eta Artisautza Azoka pilotalekuan egingo dute.

Otxandion, eskuragarri daude Mekoletako jaietako gazte afarirako txartelak

OTXANDIO • J.D.

Mekoletako jaien barruan ekainaren 9ko barikuan gazte afaria egingo dute. Afari horretarako txartelak hiru tokitan eskuratu daitezke: Fondan, Arkotxeren txokotan eta Gaztetxean. Mekoletara doanako doako musika kontzertuekin ere gozatu ahal izango du jaietako lehenengo egunean. Gozzue, Las Klitorixxx eta Ama Say taldeek kontzertuak joko dituzte, 23:00etan. Hiru taldeetatik Ama Say da ibilbiderik luzeena duena. Ortuellako boskoteak etapa bi izan ditu: 1991n taldea sortu zutenetik 1997ra artekoa, eta 2008tik honakoa. Rock alternatiboa lantzen dute, euskarazko eta ingelesezko letrak nahastuta. Hurrengo egun bietan, zapatuan eta domekan, musika kontzertu gehiago, bertso saioa eta beste hainbat ekintza egingo dituzte.

Herriko Tabernaren lizitazioa ekainaren 12ra arte luzatu dute Izurtzan

Esleipeneko oinarriak udaleko webgunean aurkitu daitezke



Izurtzako Herriko Taberna.

IZURTZA • J.D.

Orain bi-hiru aste, Izurtzako Udalak lehiaketa publikora atera zituen bertako Herriko Tabernaren kudeaketa eta eraikin berean dagoen etxebizitzaren alokairua. Berez, maiatzaren 31n amaitzen zen proposamenak aurkezteko epea, baina udalak ekainaren 12ra arte luzatu du epealdia. Pro-

posamenak aurkeztu behar ziren plataformak arazoak eman dituela da epea luzatzeko arrazoia, udal arduradunek jakinarazi dutenez.

Oinarrietan jasotzen denez, bost urterako esleipena da eta urtebeteko beste bost luzapen izan ditzake. Oinarri guztiak www.izurtza.eus webgunean aurkitu daitezke.

Gehi Zazpi taldearen kontzertua domekan, Angurreta Harrobia Arte Espazioan

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Angurreta Harrobia Arte Espazioa biolontxelo doinuek jantziko dute ekainaren 4an, domeka honetan. Gehi Zazpi biolontxelo taldeak doako emanaldia egingo du, 12:00etan. Era horretan, kultur garaikideko askotariko adierazpenetarako agertoki bihurtzeko bidea egiten hasiko da Angurreta.

Durangoko Musika Eskolako hainbat ikasle osatzen dute Gehi Zazpi biolontxelo taldea. 2011n sortu zen, Irati Ortubia irakaslearen zuzendaritzapean. Hasieran proiektu pedagogiko legez sortu bazen ere, taldeak mota askotako ekitaldietan parte hartu du. Gehi Zazpiren errepertorioan, estilo guztietako obrek dute lekua; besteak beste, obra klasikoek, pelikuletako soinu-ban-dek, boleroek, edo Fito&Fiti-paldis, Gatibu, Metallica eta halako taldeen kanteak.

Mañarian Kafraga Kultur Elkarte berria sortu dute

Ekainaren 10erako Albokan Rolla jaialdia antolatu dute herrian, egun osoko jai bat askotariko ekintzekin

MAÑARIA • J.D.

Mañarian Kafraga Kultur Elkarte berria sortu dute hainbat lagun artean, eta aterki horren pean antolatu duten lehenengo ekimena ekainaren 10eko Albokan Roll jaialdia izango da; egun osoko jai osatu dute, musika kontzertu, pilota partidu eta beste ekimen batzuekin.

Kultur elkarte berriko sortzaileek urteak daramatzate herrian ekimenak antolatzen, eta, elkar-teko sustatzaileetarako bat den Paul Aranaren esanetan, apurka "geroago eta indar gehiago" hartu dute. Esaterako, iaz ehun bat lagunentzako paella jana eta kontzertuak antolatu zituzten egun baterako, eta jendea "oso pozik" geratu zela ikusita indarrak kultur elkarte batean batzea erabaki zuten. "Ordura artekoari forma eta seriotasun bat emateko modua da elkarte berria", dio Aranek.

Herritarrei zabalik egongo den elkarte delatza azpimarratu du Ara-

nak: "Ekimen bat antolatu gura duenak elkarte hau erabili ahal izango du bere asmoa aurrera ateratzeko". Ildo horretatik, datozen asteetan galdetegi bat zabalduko dute herrian mañariarrek dituzten irrika nahiz kezka kulturalak

Galdetegi bat zabalduko dute mañariarren artean euren kezka kulturalak ezagutzeko

ezagutzeko. "Etorkizun hurbilean elkartearen erronka Kafragakideekin bideratzea gura dugu, elkartearen sustatzaile eta partaide izango direnekin", azaldu dute.

Sasoi batean, harrobia heldu aurretik, Mugarrako atxa errepi-de ingururaino heltzen zen eta hango tontor batek Kafraga izena zuen. Desagerturiko tontor haren izena berreskuratu dute elkarte berrirako.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide



Anbotokideen txokoa

EKAINENKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.



Euskal Herria Zuzenean festibalerako sarrera bikoitza.

*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Kiropodia, Ainara Urreta zentroan: Raquel Jaio Abendibar
Jatordua Uxarten: Aintzane Mendiola

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaituzte Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Kattalin Miner idazleak 'Moio' aurkeztuko du Kultur Etxean

Berrizko Kultur Etxean izango da ekitaldia, gaur, ekainak 2, 18:00etan; zaintza zerbitzua egongo da

BERRIZ • A. M.

Aimar Elozegi Ansa gazte transexualaren inguruko memoria ariketa da Kattalin Minerren *Moio*. *Gordetza ezinezkoa zen* liburua. Idazleak Berrizko Kultur Etxean aurkeztuko du gaur, 18:00etan. Elozegi Ansa gazte transexual hernaniarrak bere buruaz beste egin zuen 2007an, eta gertakari harek eragindako mina du abiapuntu liburua, izan ere, lagun eta herrikidea zuen Minerrek

Elozegi. Gaztearen suizidioaren hamargarren urteurrena izan zuen proiektuaren pizgarritzat Minerrek. 2018an Tene Mujika beka irabazita idatzi zuen Minerrek liburua. 2020an EHGAM Euskal Herriko Gay eta Lesbianen Askapenerako Mugimenduak Urrezko Hirukia eman zion, *Moio* argitaratzeagaitik. Gaurko aurkezpen ekitaldirako, antolatzaileek aurreratu dute zaintza zerbitzua ipiniko dutela.



Kattalin Miner. HALA BEDI



Fernando Torrecillak irabazi du Berrizko XXIII. jaietako kartel lehiaketa

BERRIZ • A. M.

Berrizko jaiak badute kartel iragarlea. Hain zuzen ere, Fernando Torrecilla garaitarrak irabazi du Berrizko XXIII. jaietako kartel lehiaketa. Torrecillaren *Dantzari berria* lana aho batez onartu zuen jai batzordeko epaimahaiak; aurretik, aurkezturiko zortzi lanen artean hiru aukeratu zituzten herritarrek. Herriko saria Ane Renedok eraman du, *Jaiak denonak eta denontzat* proposamenagaz; Renedok iazko kartel irabazlea sortu zuen.

Zaldibarren tapoien edukiontzia ipini dute, inklusibitate soziala bultzatzeko

Zaldibarko Udalak eta Bidelagun Gizarteratze elkarteak lankidetzan egin dute proiektua

ZALDIBAR • A. M.

Zaldibarko Udalak eta Bidelagun Gizarteratze elkarteak tapoien edukiontzi bat ipini dute Euskal Herria kalean; bihotz forma du eta, sustatzaileen berbetan, birziklapenaren bitartez inklusibitate soziala bultzatzea du helburu egitasmoak. "Edukiontzia ipintzeko helburua, apaingarria izateaz gainera, hondakinen birziklapena gizarte laguntza izatea da, eta horretan lanean jarraituko dugu", azaldu du Jose Luis Maiztegi jarduneko alkateak. "Gizarte, hezkuntza, lan, emozio edo lege mailetan euren beharrianetara nekez heltzen diren pertsonekin" lan egiten du Bidelagun elkarteak.



Oraintsu jarri dute edukiontzia.

Harrerren Elkartasun Eguna ospatzeko egun osoko egitaraua Atxondon

Zapatuan egingo dute Harreren Topaketa eta Harreren Elkartasun Eguna. Bazkari herrikoa, ume eta helduentzako ikuskizunak eta musika kontzertua egongo dira, besteak beste

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

'Guztiok gara harrera, guztiok gara herria' lelopean egun osoko egitaraua antolatu dute Atxondon, zapatarako. "Bai Bizkaian eta baita Euskal Herri osoan ere hainbat harrerera talde dago eta eurek zelan lan egiten duten jakitea polita izango litzatekeela pentsatu genuen. Be-

raz, topaketa bat antolatzea pentsatu genuen. Topaketa honen bitartez, beste harrera talde batzuekin zein migrazioaren inguruan lan egiten duten taldeekin saretzea da asmoa", azaldu dute Harrera Taldekoek. Batzar horregaz emango diote hasiera egunari, eta, ondoren, herrira zabalduko dute topaketa.

14:30ean, bazkaltzeko batuko dira, Apatako frontoian. Bazkalostean, Rokia. *Sustraiak airean* antzezlan laburra plazaratuko dute, eta 17:30ean ume eta helduentzako *Corre Kurru Corre* ikuskizuna egongo da. Eguna amaitzeko, Agharassen Bidean-ek kontzertua joko du, 19:00etan.



Atxondo Harrera Herriko taldeak egingako manifestazio bateko argazkia.



Metal Smelting enpresako langileen mobilizazioa.

Metal Smelting enpresako langileak greba mugagabea

ELAtik azaldu dutenez, Elorriko enpresa itxi gura dute eta langileak Gasteizera eraman gura dituzte

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken asteotan hainbat greba partzial egin ostean, Elorriko Metal Smelting enpresako langileek greba mugagabea ekin zioten astelehenean. ELA sindikatuko kideek azaldu dutenez, hitzarmena berritzeko ekin zioten lanuzte eta grebei. "Baina batzar hauek egiten genbiltzala, Elorriko enpresa itxi eta

langileak Gasteizera eramango dituztela jakinarazi digute", azaldu dute. Hori horrela, langileek greba mugagabea hasia erabaki zuten.

Enpresa batzordeak deitu du greba mugagabea, eta, oraingoz, %90 inguruko jarraipena izaten ari dela azaldu dute. Enpresa batzordea ELA eta CCOO sindikatuek osatzen dute.

Swinga, jaza, pop-rocka eta doinu latinoak zapatuan Traña plazan

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bartolome Ertzilla Musika Eskolako Saxoen Big Band-ek kontzertua emango du zapatuan, ekainak 3, Traña plazan. Kontzertua zentroaren 40. urteurren ospakizunaren barruan dago eta 13:00etan

Zapatuko kontzertua 13:00etan hasiko da. Aurretik eta ostean DJ Itsuak musika jarriko du

hasiko da. Kontzertuaren aurretik eta ondoren, DJ Itsuak musika ipiniko du.

Kontzertuan swinga, jaza, popa, rocka eta doinu latinoak entzuteko aukera egongo da. Abadiño Udaletik jakinarazi dutenez, Bartolome Ertzillakoek erritmo guztiei leku egingo dieten kontzertua izango da.

Elorrion hasi dira haur eskolak dituen gabeziak konpontzen

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrion hasi dira Herri Ikastetxeko haur eskola berritzen. 2019an udalak egindako diagnostiko batek ondorioztatu zuen eraikinak gabezia funtzionalak eta arkitektonikoak zituela, eta berau berritzea erabaki zuten. Lanek 18 hilabete iraungo dute, eta, bien bitartean, umeak modulu egokietan egongo dira.

Proiektu horri eskerrak, haur eskolak Europako Next Generation funtsetatik eratorritako 1.315.327 euro jaso ditu, izan ere, Espainiako Estatuko proiektu guztien artean punturik gehien lortu zuen. "Estatuko proiekturik baloratuena izatea eta finantziario hori lortzea ondo egindako lanaren emaitza izan da, eta eskerrak eman gura dizkiegu prozesuan parte hartu duten pertsona guztiei: hezkuntzan dabilen kideei eta teknikariari", azpimarratu du María Herrero zinegotziak.

Herrizaintza, Elorriotik mundura zabaltzen dabilen proiektua

Val d'Araneke udaleko kideak Elorrion izan dira, Herrizaintza proiektuaren berri izateko

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Orain urtebete inguru Elorriko Udalak, askotariko eragile sozialetan elkarlanean, Herrizaintza proiektua ipini zuen martxan sare komunitario bat eratzeko asmoz. Proiektua martxan ipini eta sarea sortu dute, beharturiko bakardadearen ondorioak leundu eta arrisku egoerak saihesten laguntzeko asmoz.

Hainbat elorriarrek parte hartu dute proiektuan. Alde batetik, bakarrik bizi diren herritarrak, zein adineko edota dependentzia egoeran dauden pertsona bategaz bizi diren herritarrak egon dira. Eta, bestetik, hauei laguntzeko boluntarioak egon dira.

Elorrion martxan ipini duten proiektu hau ez da herrian bakarrik geratu: Herrialde Katalanetara ere zabaldu da. Asteon, esaterako, Val d'Araneke udaleko kideak Elorrion izan dira Herrizaintza proiektuaren berri izateko.



Val d'Araneke kideak, Elorriko udaletxearen aurrean.



Zetak. AINHOA IRAOLA.

Zetak, ETS, Olatz Salvador, Chimo Bayo eta Kalakan

Udalak jaietako musika eskaintzaren berri eman du

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak Karmen eta Santa Ana jaietan egongo diren musika kontzertu nagusiak zeintzuk izango diren argitu du. Talde ezagunen emanaldiak entzuteko aukera egongo da. Zornotzako jaiak uztailearen 15etik 27ra ospatuko dira eta honako hauek dira jaietan egongo diren ekitaldi musikal nagusiak:

· Uztailearen 15ean: Zetak, Akerbeltz eta En Esenzia orkestra.
· Uztailearen 16an: Delirium Tremens eta Formula V.

· Uztailearen 21ean: La Furia eta Rebeca Lane.

· Uztailearen 22an: Benidorm Orquesta eta Show Party, Eraso eta Munza DJ bizkaitarrekin.

· Uztailearen 23an: Kalakan taldea.

· Uztailearen 24an: ETS, Zirkinik Bez eta Puro Relajo.

· Uztailearen 25ean: Kai Nakai.

· Uztailearen 26an: Olatz Salvador.

· Uztailearen 27an: Trikizio eta 1990eko hamarkadako jaia Fermandisco, OBK, Rebeca eta Chimo Bayogaz.

Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

Zentzua, non galdu zenuten?

Leo etxetik ihes egina zen. Horixe egiten dute libre bizi diren katuek. Igandean, bere bila atera ginen. Asteartean, Facebooken agertu zen bere argazkia, kalean (etxetik hurbil) topatu zutelako. Lepoko antiparasitarioa zeraman, baina ez du txipik. Aurkitu zuen "ongilearekin" harremanetan jarri ondoren, etxera ekarriko zuela esan zidan, Leo gaixorik dagoen eta horren frogarik-edo erakutsi gabe, eta Abadiñon dagoen babes-elkarte batera eraman zuela. Asteartean Altsasutik Abadiñora joan ginen (70 kilometrotara), Leoren eta gure bizilekutik, eta ikusita elkarte horren beste "ongileren" batek ez diela gure telefono deiei erantzuten (arratsaldean telefonoz hitz egingo genuela geratu ginen goizean) eta ez digutela gure katua emango (baditugu bideoak eta argazkiak Leorekin, gure katua dela frogatzeko), bide poliziala aukeratzeko beharra ikusi dugu, ez baitugu ulertzen "ongileek" gure katua ez ematea haien baldintzak ez baditugu betetzen, jakinda Leo etxekoa dugula.

Hau dena duela hilabete eta erdi. Leo gabe jarraitzen dugu eta harriritu gaude, baita haserre eta minduta ere. Bai, noski, badakigu munduan sufri-mendu handia pairatzen ari den jendea badagoela, eta arazo larriak daudela, baina Leo gure katua da, gure etxean bizi da. Mesede handirik ez diote egin, eta guri min egin digute, lapurtu egin digutelako maite genuen Leo, gure etxeko katua.

M. Luisa Barandiaran Bengoetxea
Altsasu

Sinadura latza

Bizkaiko erresidentzietako langileon borroka garai baten ostean heldu da eguna. Denok adi, erne... ahoa bete zaigu ratio duinak, zaintza duina, tratu txarrak langileoi eta egoilari, lan baldintza kaskarrak, eta abar.

Eta, bai, heldu da egun tristea, 2023ko maiatzaren 23a. Bizkaiko erresidentzietako lan hitzarmenaren akordioaren oinarria sinatu duzue patronalarekin batera. Harro zaudetela diozue ahobetez. Harro zertaz, ELA eta UGT? Sinatu duzuen soldata igoera bat baino ez da; soldata-eguneratze hau guztiz beharrezkoa zela argi daukagu guztiok. Sinatutako akordioaren oinarri honek ez du Patronala konpromisorik hartzera behar-tzen langileen eskubideak hobetzeko. Ez duzue uste hitzarmen honek ahaztu egiten dituela langileen benetako arazoak, lan kargak, baje osagarriak, eta abar?

Eta, noski, erresidentzietan bizi diren egoilaretaz ahaztu zarete, beraietaz eta baita beraien familietaz ere. Zaintza duinak, nola? Sinatutako atalen batek akaso beraien egoera hobetzen al du? Ezetz diot, ahobetez, ez duela zaintza duina bermatzen inondik inora.

Honek guzti honek hasieran haserre sortarazi zidan; orain, ordea, tristura. Hori bai, borroka honetan ondoan izan ditudan LAB sindikatuko bidelagunetaz ezin naiz harro-go egon. Koherentzia eta duintasuna dugu lagun, gora zuek!

LABeko Bizkaiko erresidentzietako langileok ezetz diogu, ez dugu lan hitzarmen hau sinatuko.

Borrokan jarraituko dugu inoiz baino indartsuago, dudarik ez izan, lan baldintzen alde, zaintza duinen alde eta, nola ez, pribatizazioaren kontra.

Eider Bravo (LAB)

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



EKAINAK 2

17:00 etan
IBARRETXE KULTUR ETXEAN

SARRERA DOHANIK

GONBIDAPENAK
HARTZEKO KULTUR ETXEAN

Iurreta
Elezateko Udala





Ezpalak

KONTZERTUA DURANGO :: Ekainak 2

Ezpalak eta Penny Fleck, Plateruena kultur aterpean

Durangoko Ibaizabal auzo elkarteak antolatuta, IBZ Fest jaialdia hartuko du, gaur, Plateruena kultur aterpean. Ezpalak talde zestoarra da kartelburu, eta Durangaldeko Penny Fleck boskotea ere igoko da oholtzara. DJ J.Nandez & Charles Ramirez eta DJ Iker

Undersound bilbotarraren musikak osatuko dute jaialdia. Irailean izango diren Ibaizabal auzoko jaiak berotzeko kontzertua 22:00etan hasiko da. Sarrerak Interneten ipini dituzte salgai.

Eñaut Gaztañagak (gitarra), Juanjo Berasainek (abeslaria),

Unai Eizagirrek (baxu-jotzaila) eta Janardana Iglesiasek (bateria) osatzen dute Ezpalak taldea. Laukote gipuzkoarrak 2019ko udaberriaren kaleratu zuen *Ezpalak* bere lehenengo diskoa, eta *Kolpatu topatu* (2021) horren jarraipena izanda. Iazko azaroan, *Hortz aina hots* azken diskoa kaleratu zuten. Penny Fleck taldeak iaz kaleratu zuen bere lehenengo lana: *The Secret Keeper*.

Ekainaren 2an

ATXONDO musika

Olinda, 20:30ean, Arrazolako Amillena bentan. Disko berriaren aurkezpena.

BERRIZ aurkezpena

'Moio: gordetzea ezinezkoa zen' liburuaren aurkezpena (**Kattalin Miner**), 18:00etan, Kultur Etxean.

BERRIZ tailerra

'Jolas molaz' (Txatxilipurdi), 17:00etan, Olakueta plazan.

DURANGO euskal jaiak

Franchesco Paolo Tosti: Romanzas de Salón Italianas: Amaia Urzainki (sopranoa), Robert Oviedo (pianoa) eta Emilio Garcia (kontatzailea), 19:30ean, Kuruzesantu museoan.
XII. Peter Memoriala esku pilota txapelketa, 19:30ean, Ezkurdi Jai Alai frontoian.

IURRETA antzerkia

'Arrainak bihotzean' (Mar Mar Teatro), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

MALLABIA olinpiadak

Olinpiadak, 16:30ean, eskolan (Mallabia kirol elkarte).
'Acercándonos a nuestros cuerpos: salud menstrual' **berbaldia**, 18:30ean, Kontzejuzarren.

Ekainaren 3an

ABADIÑO musika

Bart...Sax!, 13:00ean, Traña plazan. Itsua DJa, 12:30ean.

DURANGO euskal jaiak

Sugarri fanfarrearen kalejira, 13:00etan, Alde Zaharretik.
Jolas Eguna, 16:00etatik 20:00etara, Ezkurdin, Andra Mariko elizpean, Andra Mari kalean, Joxemiel Barandiaran kalean eta Zeharkalean.
XIX. Zesta-punta txapeketako finalaurrekoak, 18:00etan, Ezkurdiko frontoian.
Jeiki Hadi taldea, 19:00etan, Ezkurdiko kioskoan.

DURANGO jaia

Emakumezko futbolaren 10. urteurrena, 10:30etik 14:00etara, Tabira futbol zelaian.

IURRETA kontzertua

Petti, 20:30ean, Abadetxean.

IURRETA bertsoak

Euskal Herriko Eskolartekoen finala, 11:30ean, frontoian. Durangoko Ixone Asategi sailkatu da.

MALLABIA pilota

Olinpiadak, 11:00etan, eskolan.
Udaberriko kontzertua: Mendibil abesbatza + Dizdira ahots taldea (Zornotza), 20:00etan, elizan.

Ekainaren 4an

DURANGO euskal jaiak

Umeen eskolarteko lehiaketako sari banaketa, 13:00etan, Ezkurdin. Durangaldeko Artisten Elkarte.

MALLABIA azoka

Nekazaritza eta Artisautza Azoka, 10:00etan, frontoian.
Olinpiadak, 11:00etan, eskolan.
Gazte Alai dantza taldea, 13:00etan, frontoian.

MAÑARIA kontzertua

Gehi Zazpi, 12:00etan, Angurreta Harrobia arte espazioan.

Ekainaren 6an

DURANGO euskal jaiak

Oihan Vega, 11:45etik 12:45era, Ezkurdiko kioskoan.

ELORRIO proiektzioa

'Trenak ekarritakoak' (Zuz: Txelu Angoitia), dokumentala, 19:00etan, Iturri kultur etxean. Olazar auzo elkarte.

Ekainaren 8an

ABADIÑO kontzertua

Star Drinkers, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

DURANGO euskal jaiak

Industriaren herri kirolak ikasleentzat, Ezkurdin (09:30-10:30-11:30).
'Loraldia Eskola' pastoralara (San Antonio ikastetxe ikasleak), 19:00etan, San Agustin Kulturgunean.

'Mendian hil, hirian hil' mendi dokumentala, 19:00etan, Zugaza zineman. Ondoren, **Iñaki Peña zuzendariagaz berbaldia**.

Ekainaren 9an

BERRIZ tailerra

Musika tresnen tailerra (Josu Urrutia), 17:00etan, Olakueta.

DURANGO euskal jaiak

Joko tradizionalen topaketa ikasleentzat, 10:00etan, Landako kiroldegian.
XII. Peter Memoriala esku pilota txapelketako finalak, 19:30ean, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan (emakumeak eta kadeteak).

IURRETA antzerkia

'Menina, soy una puta obra de Velázquez' (Proyecto Cultura), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

IURRETA bertsoak

Durangaldeko Kopla Txapelketa, 20:30ean, Abadetxean.

MALLABIA jaia

Denboraldi amaierako jaia, 16:15ean, eskolan (Mallabia Kirol Elkarte).

Biharko Izarrak: finalak, 19:00etan, frontoian.

OTXANDIO jaiak

Txupina 21:00etan, Mekoleta auzoan
Gazte afarria 21:30ean,
Kontzertuak: GOZZUE + Las KLITORIXXX + AMA SAY, 23:30ean.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

- **Como Dios manda**
barikua 2: 18:30 / 21:00
zapateria 3: 17:00/19:30/21:30
domeka 4: 16:30/19:00 / 21:00
astelehena 5: 18:00/20:15
martitena 6: 18:00 / 20:15
eguzatena 7: 19:00

- **The Boogeyman**

barikua 2: 18:30 / 21:00
zapateria 3: 19:30 / 21:30
domeka 4: 19:00/21:00
astelehena 5: 18:00/20:15
martitena 6: 18:00 / 20:15
eguzatena 7: 19:00

- **Spider-man: Cruzando el multiverso**

barikua 2: 18:00/21:00
zapateria 3: 17:30/20:30
domeka 4: 17:00/20:00
astelehena 5: 17:30/20:15
martitena 6: 17:30/20:15
eguzatena 7: 19:00

- **La sirenita**

zapateria 3: 17:00
domeka 4: 16:30

::Zornotza ZORNOTZA ARETOA

- **La quietud en la tormenta**
zapateria 3: 20:00
domeka 4: 20:00
astelehena 5: 20:15

- **Alan giza antena**

zapateria 3: 17:00
domeka 4: 17:00

- **20.000 especies de abejas**
eguzatena 8: 20:15

INGURUMEN GEHIGARRIA 2023

GEHIGARRIA • ARITZ MALDONADO

Libe Gaztelurrutia eta Gorka Ormaetxea fisikariek ETBko Eguraldian lan egiten dute. Eguraldiaren iragarpena egiteaz gainera, meteorologiari buruzko bitxikeriak batzen dituzte, eta informazio hau jendeari helarazi. Hain zuzen ere, herritarrek eguraldi aldaketei adi jarraitzen dietela azpimarratu dute: "Jendeak kasu egiten dio diogunari, eta planak egiten ditu horren arabera; akats bat dagoenean, jendeak garrantzia ematen dio". Lana pasioz bitzitzeaz gainera, lanean egunero zerbait berria ikasita etxeratzen direla azpimarratu dute biek.

Zer eguraldi egingo du asteburuan?
Libe Gaztelurrutia: Orain arte egiten ari dena, nahiko tenperatura ona, 20tik 25 gradura bitartekoa, goizez ateri eta arratsaldez ekaitz edo zaparradaren bat.
Gorka Ormaetxea: Udaberriko giro totala. Aste osoan egin du horrela, eta asteburuan ere egingo du.

Egoera normal batean, hiru edo lau egun lehenago nahiko pronostiko fidagarria egin daiteke gaur egun

LIBE GAZTELURRUTIA

[Elkarrizketa martitzenekoa da] Zenbateko aurrerapenagaz egin ditzakezue iragarpen ziurrak?

L. G.: Egoeraren arabera da hori. Egoera ezegonkorra denean ez da hain erreza, baina egoera normal batean, hiru edo lau egun lehenago nahiko pronostiko fidagarria egin daiteke gaur egun. Hortik aurrera, nahikotxo jaisten dira aukerak. Oso gatxa da egoera ezegonkor batean ekaitza noiz, zelan eta non botako duen zehaz-

“Hamabost egunera egingo duen eguraldia jakiteko mugikorrera jotzen da, baina hori zientzia fikzioa da”

Libe Gaztelurrutia eta Gorka Ormaetxea fisikari durangarrak ETBko Eguraldia lantaldeko kideak dira; Durangaldean baino gehiago Euskal Herriko beste leku batzuetan igarri arren, urte hasiera lehorra izaten ari dela azpimarratu dute biek



Gorka Ormaetxea Velasco

Fisikaria

DURANGO | 1991

Libe Gaztelurrutia Renom

Fisikaria

DURANGO | 1990

tea. Egoeraren menpekoak dira iragarpenak. Ez da berdina egoera antizikloniko egonkor batean egitea, edo fronte bat badator.

G. O.: Asteotako egoera ez da erraza, oso ezegonkorra delako. Egoera egonkor batean, errazago

asmatzen da. Gaur egun, zehatz jakin daiteke noiz sartuko den frontea, edo noiz hasiko den eurria. Adibidez, enbata noiz sartuko den zehatz jakin dezakegu. Baina epe luzerako pronostikoak ez dira oso gertagarriak. Jendeak as-

tebete barru zein eguraldi egingo duen begiratzeko mugikorrera jotzen du, baina hori zientzia fikzioa da. Hamabost egunera egingo duena ezin da jakin, egiten diren iragarpenek %50ekoa baino probabilitate txikiagoa

dute. Beraz, imajinatu udarako iragarpenak egiten dabiltzanak. **2023a sikua izaten ari dela esaten da. Horrela da?**

G. O.: Urte hasiera sikua izan da orokorrean, batez ere otsaila, martxoa eta apirila; urtarrila eta

maiatza hezeagoak izan dira; hile bi horietan oso egun euritsuak ere egon dira Kantauri isurialdean. Hemen, klima hezeagoa da hegoaldean baino, eta mediterraneokoaren antza gehiago du. Hor bai badago lehorte egoera bat. Konparatzearen, lurretako estazioko datuak eta Erriberako Tuterako (Nafarroa) datuak alderatu daitezke. Erreferentzia bat edukitzeko, azken hamar urteetako datuei erreparatuta, Tuteran maiatzean 47 litro bota ditu batezbeste; aurten, 43 bat litro bota ditu urteko lehen bost hiletan. Hor ikusi daiteke zela-sikua izaten ari den urtea.

L. G.: Horrez gainera, urtegiak eskas daude eta egoera larria dela esan daiteke. Iurretako estazioan 486 litro inguru bota dituela jaso da aurten, eta, gainera, inguruko urtegiak ere beterik daude. Egia da otsaila, martxo eta apirila lehorrak izan direla, baina desberdina da. Klima desberdin bi dira, baina erreferentziak hor daude. Gainera, nekazaritza mundutik bizi den gunea da Erribera, eta, beraz, lehorteak asko eragiten du; uzta osoak galdu dira eta landatzeari utzi dion jendea ere badago.

DANA bolo-bolo dago egunotan. Euri jasa garrantzitsuak egon dira maiatzean Senperen, Urumealdean

eta Bortzirietan, adibidez. Hain ezohikoak dira?

L. G.: Askotan errepikatzen den fenomeno bat da. Goi geruzetako depresio isolatua da, funtsean; hau da, 5.000 metrora dagoen ai-

Erreferentziako txostenen arabera, horiek dira pronostikoak. Gertakari geroago eta muturrekoagoak, eta sarriago

GORKA ORMAETXEA

Ez diogu dimentsioa ikusten lurraren tenperatura 1,1 gradu igotzeak suposatzen duenari

GORKA ORMAETXEA

re masa hotza mugitu egiten da; tanta hotza lez ezagutzen dena izendatzeko erabiltzen da orain. Egoera horiek gertatzen direnean, iragarpenak egitea oso gaxta da. Badakizu ekaitza egiteko aukera gehiago dagoela, baina

gaur egungo teknologiagaz oso gaxta da ekaitzaren kokapena, iraupena eta intentsitatea asmatzea. Gaur egungo eredu meteorologikoak oso garatuta daude, baina ez hainbeste. Adibidez, ikusten zen Bortzirietako euri jasa egoera ezegonkorra zela, ekaitza sartuko zela, baina ez horrenbestekoa izango zela. Pentsa maiatzeko euri jasa horietariko batean Donostian ez zuela euririk egin, eta Añarben 256 litro ur jaso zirela. Eta Durangon eguna eguzkitsua izan zen.

G. O.: Gertaera hauek patroï bati erantzuten diote, urtero gertatzen direnak. Baina bat-batekoak dira, eta oso indartsuak; behar bada horregaitik nabarmentzen dira horrenbeste. Ziurrenik, etorkizunean asmatuko ahalko dira, baina gaur egun ez. Denbora gehiago daramaten lankideek esaten digute faxes deitzen diren isobara mapekin egiten zituztela iragarpenak; mapa horiekin gauza batzuk jakin ditzakezu, egin ditzakezu iragarpenak, baina orokorrak. Gaur egun aldagai gehiago hartzen dira kontuan.

Urteekin pronostikoak zehatzagoak direla diozue. Jendeak igartzen du, ala kexa asko heltzen zaizue?

L. G.: Gatxa egiten zaigu ulertzea prebisioa probalitate kontua

dela. Esaten dena ez da behin betikoa. Informazio hori probalitate bat da.

G. O.: Herritarrek jarraitzen duten gaia da, eta konfiantza dute iragarpenetan. Jendeak sinesten ditu, aplikazioetan begiratzen du, eta horren arabera planak egiten ditu, eta horren atzean ereduak, meteorologoak eta abar gaude, asmatu zein ez. Ulertu behar dena da probalitate kontu bat direla iragarpenak. Akatsei garrantzia ematen zaie, jendeak iragarpenei garrantzia ematen dielako.

Gertaerak muturrekoagoak direla ematen du, lehorteak lehorragoak, euri jasadurituagoak. Horrela da? Badu loturarik aldaketa klimatikoagaz?

G. O.: Gertakari isolatuak ezin dira aldaketa klimatikoagaz lotu, bere horretan; jatorriak ere ez du zertan horrela izan. Baina erreferentziakoak diren txostenen arabera, horiek dira pronostikoak. Horretara goaz, gertakari geroago eta muturrekoagoak, eta sarriago: lehorte gehiago, eta denboran gehiago luzatuko direnak, eta, aldi berean, geroago eta euri jasa handiagoak. IPCC txostena erreferentziakoa da arlo horretan, herrialde askotako adituek parte hartzen dute, eta agertoki desberdinak planteatu

dituzte, CO2 eta bestelako berotegi efektuko gasen isurketen arabera.

L. G.: Isuri horiek, edota horren erresultanteak, hutsera ekartzea lortu gura da, lurraren tenperatura 1,5 gradu baino gehiago ez igotzeko. Hau da, zero emisioa esaten denean ez da esan gura CO2 kantitatea zero izatea, Lurra xurgatzeko gai denaren eta isurtzen denaren arteko orekari buruz ari gara. Gaur egun, lurraren tenperatura 1,1 gradu zentigradu igo da. Agertoki baikor batean, gradu eta erditik ez igotzea lortu gura da; txarrenean jarrita, lau igo daitekeela diote adituek.

Ez da etorkizuneko mehatxu bat, beraz.

L. G.: Aro industrialaz geroztik lurraren tenperatura 1,1 gradu igo dela frogatu dute, CO2 isuria eta tenperatura batera hazi direlako.

G. O.: Ez diogu dimentsioa ikusten lurraren tenperatura 1,1 gradu igotzeak suposatzen duenari. Gradu bat igotzea guretzat ez da hainbeste, baina hori mundu osoko batezbestekoa da; eragiten du klimaren aldaketan, itsasoaren mailan, espezie askoren galeran, prezipitazio patroien aldaketan edo jendeak emigratzeko duen beharrez. Izugarritzko eragina du.

30. URAREN JAIA

ANIMAZIOA

PUZGARRIAK

IKUSKIZUNAK

ERAKUSKETAK

JOKOAK

UR EKINTZAK

TAILERRAK

ARRIGORRIAGA
LEHENDAKARI AGIRRE PARKEA
UDALETXE PLAZA

EKAINAK 3
10:30 - 19:00

UDALA - AYUNTAMIENTO

Bilbao Bizkaia
Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas
Bilbao Bizkaia

EROSKI, BOST URTE OSASUNAREN ETA IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO KONPROMISOAK GAUZATUZ

Urte hauetan hainbat ekintza jarri ditu martxan, besteak beste elikagaien segurtasuna bermatzea eta tokiko ekonomia sustatzea

Bost urte bete dira EROSKI Osasunari eta Iraunkortasunari loturiko 10 Konpromisoak berriro zituenetik, ongizate gehiago eta hobe izango duen gizarte baten alde egiteko asmoz. Orduz geroztik, hainbat ekintza jarri ditu martxan, besteak beste, elikagaien segurtasuna bermatzea, elikadura osasungarria eskaintzea prezio onean, eta iraunkortasuna eta tokiko ekonomia sustatzea.

Nutrizio arloko Nutri-Score etiketa txertatzea eta palma gantza gure markako produktuen %100ean desagerraraztea izan dira azken bost urteetako lorpen aipagarrienak elikadura segurua, osasungarria eta orekatua eskaintzeko konpromisoan.

Elikadura arduratsuak, osasungarria eta orekatua ez ezik, jasangarria ere izan behar du. Baliabideak zentzuz erabiltzea, ingurumen aztarna

murritztea, ekonomia zirkularra sustatzea, klima aldaketaren aurka borrokatzea, biodibertsitatea babestea... ezinbesteko arau gisa ageri dira EROSKI-ren dekalogoan. Enpresak ahalegin handiagoa egin du arlo horretan, eta konpromiso handia hartu du 2050ean berotegi efektua eragiten duten gasen isuri gordinak zero izan daitezzen.

Horretarako, EROSKI %42 murriztu du karbono aztarna bost urte hauetan, ekoeraginkortasunaren aldeko neurriak txertatu baititu denda eta prozesu logistikoetan. Alde horretatik, aitortza gisa jasotako bi Lean & Green izarrak nabarmendu behar dira, berotegi efektua eragiten duten gasen isuriak %30 baino gehiago murrizteko helburua lortu duelako 2015etik hona. Hobekuntza horiei guztiei esker, urtean 124.000 tona CO2 baliokide gutxiago isurtzen dira.

Bezeroei produktu jasangarriagoak eskuratzen laguntzeko, EROSKI hainbat ziurtagiri sartu ditu bere markan, eta horiekin bermatu egiten du haien jatorria jasangarria dela, babestu egiten dela animalien ongizatea eta baita lurreko eta itsasoko biodibertsitatea ere. Nabarmentzekoa da Espainiako txikizkako banaketan MSC eta Global G.A.P. zigiluak lortu dituen lehen banaketa enpresa izan dela arrandegiko salmahaietan eta arraina ontziratu gabe saltzen duten plataformetan; horretaz gain, EROSKI Bio/Eko produktu ekologikoen marka ere sortu du, eta hori ere mugarria izan da. Bestalde, bere markako ontziak, ordainlekuetako poltsak eta freskoen salmahaietan erabiltzen dituen bilgarriak ere hobetu egin ditu. Ekodiseinuko ekintzei esker, urtean 2.500 tona plastiko baino gehiago murriztea lortu du.



Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Odontologia**
PSE: 26/22

viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durango

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Ordulogia:
Astelehenerdik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

 **Optometria**
PSE: 162/13

**Naia
Zabala
Azumendi**
11587 kol. zk.

keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Proktologia**
PSE: 16/22

próktós.clinic

**Uzki eta zoru-pelbikoko
patologiaren tratamendua**

Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktoklinika.eus

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

**Muruetatorre, 2D
DURANGO**

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**
PSE: 145/13

clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA •
INPLANTOLOGIA • KIRURGIA •
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA • ODONTOPEDIATRIA • PADI •
HORTZETAKO ESTETIKA • HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, beheka -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Podologia**
PSE: 214/06

**Ainara
Urreta
Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 beheka
DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**
Ane Legorburu Munitxa

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Saio pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Tranbarren 13, 4. blokea
beheka eskuma MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

PSE: 119 -13

BERTSOLARITZA • A. M.

Lurralde jokaturiko Eskolartekoetatik sailkatutako hamar bertsolari gazte arituko dira kantuan zapatuan Iurretan egingo den finalean. Horietariko bat Ixone Asategi durangarra da; beragaz batera, Haizea Telleria sailkatu da Bizkaitik. Gipuzkoatik June Aiestaran eta Danel Etxeberria sailkatu dira; Nafarroatik Kattin Madariaga eta Eki Mateorena; Arabatik Maddi Agirre eta Sabin Abarrategi, eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ordezkariak Haira Aizpurua eta Ibai Lekuona izango dira. Apirilean hasi eta orain arte egin dira eskolartekoak. Finalerako giro beroa izatea itxaroten dute Bertsozale elkarteak, kanporaketetan eta herrialdeetako finaletan hala izan delako. Sarrerak doakoak izango dira eta gonbidapenak www.bertsosarrerak.eus atarian daude eskuragai.

Ixone Asategi Gernikan jokaturiko Bizkaiko Eskolartekoan sailkatu zen finalerako. Idatzizko eta bat-bateko txapelketak batera jokatu ziren joan zen astean, eta 200 gaztetik gora batu ziren bertan. Bat-bateko txapelketan, zortziko handian eta txikian ofiziotan egin zuten gazteek, eta gaiari erantzunda gero; Asategik berak eta Haizea Telleriak elkarregaz abestu zuten buruz burukoan; Telleriak irabazi zuen eta Onintza Enbeita bertsolariak ipini zion txapela.

Bizkaikoa, erabakita

Bestetik, osatu da Bizkaiko Txapelketan kantatuko dutenen zerrenda. Udabarria Bertsoan fasean lehiatu ostean, Durangaldeko bertsolari hauek sailkatu dira Bizkaikora: Igor Galarza, Ander Sarriugarte, Bittor Altube, Araitx Katarain, Garikoitz Sarriugarte eta Iruri Altzerreka; Bittor Altubek Zallako saioan irabazita lortu zuen Bizkaikorako sailkatzea. 2021eko Bizkaiko Bertsolari

Hamar bertsolari Euskal Herriko Eskolarteko txapelaren bila lehiatuko dira Iurretan, zapatuan

Zapatuan hasiko da Euskal Herriko Eskolartekoa, 11:30ean, Iurretako frontoian; Ixone Asategi durangarrak kantatuko du

Txapelketan finalista izateagaitik, zuzenean finalurrekoetan abestuko dute Aitor Bizkarra abadiñarrak eta Gorka Pagonabarraga durangarrak; bestalde, kanporaketetan zuzenean sartzeko aukera dute Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek eta Txaber Altubek; 2021eko Bizkaiko Txapelketan finalurrekoetan kantatu zuten biek.

Hamar bertsolari gazte parte hartuko dute finalean; euren artean, Ixone Asategi durangarrak

Bizkaiko Txapelketan parte hartuko duten bertsolarien zerrenda osatuta dago jada

Kopla txapelketa

Bestalde, ekainaren 9an Durangaldeko VIII. Kopla Txapelketa egingo dute, Iurretako Abadetxean, 20:30ean. Durangaldeko hamar bertsolari kantatuko dute bertan: Bittor Altubek, Janire Arrizabalagak, Ixone Asategik, Irune Basagoitik, Igor Galarzak, Unai Iturriagak, Naroa Jaiok, Gorka Lazkanok, Paulo Salterainek eta Ander Sarriugartek. Iruri Altzerrekak, Itxaro Juaristik eta Ainhoa Urienek ipiniko dizkiete gaiak. "Munduko trikitilaririk onenatarikoen" ere parte hartuko dute urtero jai giro itzelean egiten den jaietan.



Eskolarteko txapelketa bateko artxiboko irudia.



Ixone Asategi, eskuman, Gernikako saioan.

Iurretako literatur sariak banatu dituzte, irakurzaletasuna bultzatzeko helburuagaz

Sariketaren hogeigarren edizioa izan da; Iurretako Udalak 3.100 euro banatu ditu saritan



Barikuan egin zuten sari banaketa.

LITERATURA • A. M.

204 lan aurkeztu dituzte Iurretako Literatur sarietara. Haur, gazte eta helduen artean irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz antolatzen dute lehiaketa Iurretako Udalak eta Herri Bibliotekak, Maiztegi herri eskolagaz eta Juan Orobiogotia institutuagaz batera. "Haurren sailean 138 lan aurkeztu dituzte, gazteen sailean 54, eta helduenean 12; guztira, 204 lan aurkeztu dituzte", azaldu dute ohar baten bitartez. Iurretako Udalak 3.100 euro banatu ditu sarituen artean. "Txikientzat liburu sortak banatu ditugu, eta gazte eta helduen artean liburuetarako bonuak izan dira sariak. Haur eta gaztetxoek kategorietan, Iurretako Udalak esker oneko opari bana eman die parte hartzaile

guztiei, ahalegina saritzeko asmoz. Aurrerantzean ere irakurzaletasuna eta sormena uztartzen dituzten proiektuetan lanean jarraituko dugu. Lehiaketa honen helburuen artean, integrazioa eta kultur aniztasuna ere baditugu", azaldu dute antolatzaileek.

Iurretako sortzaileek ere parte hartu dute edizioan, izan ere, Iraia Okina ilustratzaileak sortu du lehiaketaren iruditegia (oinarriak, liburuxka eta kartelak), eta Markel Onaindia sortzaile iurretarra, liburuxkako hitzaurrea idazteaz gainera, sari banaketan ere egon zen. Hain zuzen ere, hogeitau sorturikoak hogeitau liburuxkatan argitaratu dituzte; liburuxken aleak Herri Bibliotekan eskuratu daitezke.

Pinpilinpussies eta Los Vecinos taldeek kontzertua emango dute Intxaurre elkartearen Eguenero egitasmoan

Kontzertua ekainaren 8an izango da, 21:00etan; Ane Barcena durangarraren Pinpilinpussies taldeak Bartzelonan eman zituen lehenengo pausoak



Raquel Pagés eta Ane Barcena. CLARA OROZCO

MUSIKA • A. M.

Pinpilinpussies eta Los Vecinos taldeek kontzertua emango dute Intxaurre elkarteak antolatu duen Eguenero ekimenaren barruan; kontzertu sortak bosgarren edi-

zioa du aurten. Eguraldia lagun, jendetza batu ohi da Durangoko Alde Zaharreko txokoan. Pinpilinpussies bikotea Bartzelonan sortu zuten Ane Barcena durangarrak eta Raquel Pagés. Lan luze bi (*Fuerza*

3 eta *Hipocondría*, biak Aloud music diskoetxeagaz argitaratuta) kaleratu ostean, *Todo saldrá mal* abestia kaleratu dute oraintsu; doinu melodikoagoak jorratu dituzte oraingoan, betiko indarra eta energia

Ekainean beste hitzordu bi egongo dira Intxaurren: 15ean Chuleria, joder! eta 22an Sala eta Garazi

ere ageri diren arren. Ohikoa duten moduan, zuzeneko basatia emango dute. Inguruan ikusteko aukera bakarretarikoa izango da, baina ez bakarra. Izan ere, Pinpilinpussiesek kontzertu sorta iragarri du udarako, eta, besteak beste, Bartzelonako Cruilla, Gijongo Tsunami eta Torremolinoseko Canela jaialdietan joko dituzte zuzenekoak. Bestalde, Los Vecinos taldea 2022an sortu zuten Martinek, Ismak, Iñakik eta Miguel; *Siempre saludaban* lan laburra kaleratu dute aurten. Lan hori aurkezteko biran dabil taldea, eta, besteak beste, Madrilen eta Valentzian ere joko dute; talde biek elkarregaz joko dute, azaroan, Bartzelonan.

Maiatza eta ekaina

Maiatzean hasi zen Eguenero kontzertu sorta, eta, besteak beste, Añubek eta Dube talde berriztarrek eman dute kontzertua bertan. Ekainean, beste hitzordu bi gehiago ere egongo dira Intxaurren. Ekainaren 15ean, Chuleria, Joder! taldeak kontzertua joko du; Bizkaitarrek Berrizko txosnagunean ere emango dute kontzertua, bertako jaietan. Ekainaren 22an, Garazi Barrenak eta Asier Salak kontzertu akustikoa emango dute; Debagoienatik dator bikotea. Kontzertu biak 21:00etan hasiko dira eta doakoak izango dira.

Gai librean

Betuleak erre nituenekoa

Kontuz, nostalgia arrastoak izan ditzake: diogunaren eta dihardugunaren arteko eskizofrenia handituz doan honetan, bakearen bila irten naiz maiz eguzkitara, zinemara edo Goienkalera. Eta topatu izan dut halako erremedio bat, suzko liliak piztu bezain azkar itzali dena.

Spotifyko playlist borobilak sortzen saiatzen naiz orduan, pozaren aldaera berriak luzatzeko botikina osatze asmotan. Garai bakoitzari begira aiposatu den izenburua asmatzen dut, argazki batekin gorde, abesti batetik besterako ordena kalkulatu... Sentimentala, piztia perfektua izan daiteke bere denbora librean.

Finean, gatazka unibertsalen izendatzeak bilatzen ditut, pintadetarako lemak edo kontestu bisualak. Elkarlotzeko zein askatzeko balio duten abes-



Ainhoa Olaso Sopelana Behargina

Spotifyko playlist borobilak sortzen saiatzen naiz orduan, pozaren aldaera berriak luzatzeko botikina osatze asmoz

Finean, gatazka unibertsalen izendatzeak bilatzen ditut, pintadetarako lemak edo kontestu bisualak

tiak: etxe arteko patioetatik bolumen altuan irten eta gure sukaldeetara distortsionatuta sartzen direnean, aurpegi, eguraldi eta emozioak gurutzatzen diren lekuetara transportatuko gaituzten abestiak. Sentsazio bakan batera, nobela bat irakurtzen amaitu osteko gorputzaldia bezala edo zerbait aldatu zela konturatu ginen momentua gogorazaziko diguna. Zorionekoa ala zoritxarrekoa.

Eta bila eta bila nabil etengabe gaua egin arte. Orain behar ditut moduren batean kantatu eta kontatu belaunaldi baten garaipenak, ameskerien dezepzioak eta jada badatorren uda hau.

Oilasko erre usaina hartu dut inguruan. Eskumako begiko betuleak erre zaizkidala konturatu naiz atoan (eszena hau beste zutabe batean kabitu beharko da). Oraina orainetik begiratzeko moduen bila, lara la la, lara la la...

“Pilotaren mundutik kanpora deskonektatzea lortzen dut; horrek partidu inportantei aurre egiten laguntzen dit”

Aitor Elordik buruz buruko txapelketa nagusiko finala jokatu du domeka arratsaldean Bizkaia pilotalekuan

PILOTA • J.D.

Nekatu ahotsa sumatzen zaio. Elordi ia ordu bian aritu da kazetarien galderari erantzuten ANBOTOn deia hartu duenean. Binakakoan beste horrenbeste gertatu zitzaion. Lau eta erdiko txapelketan ere bai. Denek gura dituzte modako pilotariaren adierazpenak.

Zer da gogorragoa, buruz buruko finalera heltzea ala orduetan hainbeste galderari erantzun behar izatea?

Momentuan lan hau apur bat gogorra egiten da, baina arrazoiak hausnartzerakoan badakizu gauza on bategaitik dela, eta horrek lan guztiak orekatzen ditu. Elkarriketa asko ematea seinale ona izaten da normalean.

Ez da txapelketa honetako kontua bakarrik. Urte osoa daramazu fokuen erdian. Horrek eragina izaten du?

Egia esanda, orain artekoa oso ondo daramat. Pilota mundutik kanpora nagoen momentu guztietan deskonektatzea lortzen dut eta horrek asko laguntzen dit partidu garrantzitsuei aurre egiterako orduan. Baserrian bizitzeak ere laguntzen dit deskonektatzen, han nire munduan eta neure baitara nago eta.

Binakako finalera ere heldu zara aurten. Binakako ala buruz buruko

finalera heldu, sentsazioak diferentek dira?

Sentsazioa antzekoa da, zeren eta final guztiek inportantzia handia dute, baina buruz burukoa gehien baloratzen den modalitatea denez, horrek berezitasun puntu bat ematen dio eta gehiago baloratzera helitzen zara. Nire kasuan, behintzat, horrela da.

2022ko urrian elkarrizketatu zintugunean, titular hau azpimarratu genuen: "Iazko txapelketatik ikasgai bat ateranuen: handienei irabazteko kapaz naizela sinestea". Mentalitate horretan dago arrakastaren gakoa?

Izan daiteke. Zati bat bai, behintzat. Horregaz batera, garbi dago fisikoki ere gai izan behar duzula denbora luzez maila horri eutsi ahal izateko. Baina egia da norberak sinestu egin behar duela onenei irabazteko kapaz dela, ze, sinestu ezik, ez nuen lortuko lortzen nabilena.

Darioren kontrako finalerdian jarrera hori ikusi genuen. Estutasun uneetan ere lasai eta tinko igartzen zitzaizun.

Ez Darioren kontra bakarrik. Maila horretan partidu askotan egoten dira horrelako egoerak. Esaterako, gogoan dut Lasoren kontrako partidua lau eta erdian: 14-1 irabazten hastetik 18-15 egotera pasatu ginen. Azkenean, mentalki entxufatuta egotea eta kontzentrazioari



Aitor Elordi Txakartegi

Pilotaria
MALLABIA | 1996

FOKU

eustea garrantzitsua da. Aurkaria hurreratzen bada, izan dadila bere merituegaitik, eta ez norbere akatsengaitik.

Finalera begira ipinita: ligaxkan ere jokatu zenuen Jokin Altunaren kontra. Orduan, 18-15 irabazten joan eta galdu egin zenuen. Ordukotik ater beharreko ondorioak ateratu dituzu?

Hurrengo partidurako aterata nituen. Gakoetariko bat izan zen amaiera horretan ez nuela asmatu bere bolada ona moztzen. Atsedena bat eskatuta, esan gura dut. 15etik zuzenean joan zen 22ra. Bere bolada hori mozteko aukera izan nuen, baina ez nuen egin. Ondoren etorri diren partiduetan

baliagarriak izan zaizkit partidu hartatik ateratako ikasgaiak.

Orduko partidua Eibarko Asteleanean jokatu zenuen. Finala Bizkaia pilotalekuan da. Bilbokoa hobeto datorkizu?

Uste dut bioi antzerako ezaugarriak dituen pilotalekuak gustatzen zaizkigula. Bilbokoa biok gustura sentitzen garen frontoia dela esango nuke. Nirean zentratuta, sarritan pilotari altuera ematen ahalegintzen naiz, eta, alde horretatik, Bilbokoa frontoi proposa da, sabai garaia duelako. Pilotari altuera eta karga bat emateko aukera ematen dizu. Lasoren kontrakoa bertan jokatu nuen eta

ikusitako gustura sentitzen naizela frontoi horretan. Alde horretatik, sentsazioak onak dira.

Jokatzen duzun tokian jokatzen duzula, lagunak hantxe izaten dira zu animatzen. Hainbeste partidu garrantzitsu jokatzen jarraitzen baduzu, nekatuko dituzu!

(Barrez). Esango nuke oraindino ez dutela nekatzeko aukerarik izan. Eurak ere amets batean daude. Espero ez zituzten helburuak betetzen nabil eta nire garaipenak neuk beste sentitzen eta ospatzen dituzte. Haiek ere oso entxufatuta daude lortzen nabilen denagaz, eta hori oso polita da. Denok topera bizi behar dugun momentua da.

MALLABIA • J.D.

2016an profesionaletan debutatu zuenetik, Elordik bidelagun izan ditu bere kuadrillako lagunak: Elordi non, eurak han. Une onetan zein txarretan, mallabitarrari ez zaio falta izan animo oihurik. Eta, jakina, mallabitarraren ibilbideko hitzordurik garrantzitsuenean ere ez dute hutsik egingo. Domekan Bizkaia pilotalekuan izango dira eta eztarria urratzeko prest daudela diote. "Animorik ez zaio faltako, hori seguru. Irabazi ala ez, zeu zara gura txapelduna, Aitor!", dio Julen Barrainkuak.

Zazpi urtean, makina bat herri ezagutu eta abentura bizi izan dituzte. "Nik 2019an Oier Etxebarriagaz jokatu zuen Promozio mailako binakako txapelketa gogoratzen

Elordiren lagunak ez dute hutsik egingo mallabitarraren hitzordurik garrantzitsuenean: "Irabazi ala ez, zeu zara gure txapelduna!"

dut bereziki. Partidu asko herri txikietan ziren eta Euskal Herriko txoko asko ezagutzeko aukera izan

Gauean harrera egingo diote Elordiri Mallabiko frontoian, eta, ondoren, afaritara batuko dira

genuen. Baita hainbat jate txela ere. Gainera, Etxebarriaren lagunekin hartu-eman ona genuen eta oso ondo pasatzen genuen elkarregaz.

Txapelketa irabazi zuten, eta, bezaz, ezin gehiago eskatu!", gogoratu du Gartxot Mugarzak.

Pantaila erraldoia

Bizkaia frontoira joan ezin direnek finala lagun artean eta zuzenean ikusteko aukera izango dute Mallabian bertan. Izan ere, 17:00etan pantaila erraldoi bat ipiniko dute Mallabia I pilotalekuan. Gauean, 21:30ean, harrera egingo diote Elordiri frontoian. Ondoren, lagun artean afalduko dute eta DJ Txurruren musikak girotuko du gau giroa.



Gartxot Mugarza, Aitor Garitagoitia, Julen Barrainkuak, Ioritz Gisasola eta Jon Gisasola.

Igoeren poza eta jaitsieren tristura, denerik izan da aurten eskualdeko futbol taldeen artean

Bigarren Mailara igo den Amorebieta gizonetan eta onenekin ibili den Elorrio emakumeetan dira alderik positiboak. Aitzitik, amaitu da oparotasuna Bizkaiko Ohorezko Mailan: Elorrio eta Abadiño mailaz jaitsi dira eta lurretako da geratzen den ordezkari bakarra



Amorebietak Lezaman lortu zuen igoera, joan zen zapatuan, Bilbao Athleticen kontra husna berdinduta.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Amaitu dira edo amaitzear daude futboleko liga denboraldiak, eta eskualdeko taldeen artean denerik aurkitu daiteke: igoeren poza, jaitsieren tristura, eta tarteko kolore eta sentipenak.

Amorebieta Bigarren Mailara bueltatu dela da lorpenik esanguratsuena. Orain urte bi lorturikoa errepikatu dute. Orain, datorren urteko erronka planifikatzea ego-

kituko zaie arduradunei: Bigarren Mailari eustea bertara igotzea baino balentria handiagoa litzateke.

Euskadin, eskualdeak talde bi ditu: emakumeetan Elorrio futbol taldea, Euskal Ligan; gizonetan Durangoko Kulturala, Hirugarren Mailan. Elorriok oso denboraldi ona egin du eta azken unera arte igoera faserat sailkatzeko borrokan aritu da Alaves B lako taldeen kontra nor baino nor gehiago. Duran-

goko Kulturala, oster, ezin izan da nabarmendu. Zortzigarren amaitu du, sailkapenaren erdi-erdian, baina beheko postuak hurrago dituela. Erregularitasuna falta izan zaio.

Ohorezko Mailan eskasen

Eskualdeko taldeei dagokienez, Bizkaiko Ohorezko Maila izan da txarrena. Abadiño eta Elorriok maila galdu dute. Abadiño iaz igo zen maila horretara eta Elorriok

denboraldi gehiago zeramatzan. Horrela, eskualdeko ordezkari bakarra geratu da Ohorezko Mailan: lurretako. Normalean, goiko postuetan borrokatzera ohituta daude, baina aurten sufritzea egokitu zaie eta hiru puntura geratu zaie jaitsiera.

Ohorezko Maila umezurtz geratu da eskualdeko derbiei dagokienez. Aitzitik, koska bat beherago, Lehenetsuneko Mailak derbiak berreskuratuko ditu mailari eustea lortu duen Zaldibarko Zaldueguz, Elorrioguz eta Abadiñoeguz.

Lehenengo Erregionalean gizonetan nahiz emakumeetan ditugu ordezkariak. Albisterik txarrena da Elorrio B-k maila galdu duela emakumeetan. Gizonetan Ezkurdik mantentzea lortu du, aparteko estatusunik barik, eta Amorebieta B goiko postuetatik gertu ibili da.

Bigarren Erregionalean, mailari eutsi diote gizonen —Ezkurdi B eta Abadiño B— nahiz emakumeen —Ezkurdi— taldeek.

Berriz ezin igo

Azkenik, Hirugarren Erregionalean Berriz ezin izan du denboraldi bikaina igoeragaz borobildu. Baina klubaren 50. urteurrenean igoera fasea jokatzea lortu dute eta ematen du, aspaldiko partez, etokizunari itxaropentsu begiratzeko moduan daudela.

Egun osoko jaia, bihar, Zaldueguz Kirol Elkartearen 50. urteurrena ospatzeko

FUTBOLA • J.D.

Zaldibarko Zaldueguz Kirol Elkartearen sortu zeneko 50. urteurrena ospatzen aritu da denboraldi osoan zehar. Ekimen sortaren amaiera modura egun osoko jai bat antolatu dute biharko, eta hiru talderen arteko futbol lehiaketa domekarako.

Beteranoen arteko futbol partidu batez hasiko dute eguna. 10:00etan, Zaldueguz eta Extremeñoeko beteranoek jokatuko dute Solobarria futbol zelaian. Ondoren, zelaitik kalera eramango dute jai giroa, Herrikorner herri harmailak giroturiko poteoagaz. Kalejira horretan, Negu Gogor tabernan geldialdi berezia egingo dute, Zaldibarko abesbatzak Zaldueguzen ereserkia abestuko du eta. Horren ondoren, bazkaritara batuko dira Olazar pilotalekuan, eta, 'familia' batuta dagoela aprobetxatuta, Zaldueguzen historiako presidentek eta bazkide beteranoak omenduko dituzte. Egunean zehar umeentzako ekitaldiak ere izango dira bihar, zela zaharretan.

Domekan, 10:00etan, kadete mailako Zaldueguz eta Bizkaiko eta Gipuzkoako selekzioek hiruren arteko lehiaketa jokatuko dute Solobarrian. Bertan, hainbat lagun ospetsuk emandako kamisetak zotz egingo dituzte.

Jokaldia

Aparretan

Lehen mailako buruz buruko txapelketa nagusiko finala jokatuko du igandean Aitor Elordik Bizkaia pilotalekuan. Jokatzeko aukera ere ez izatetik, txapela irabazteko partida bakarrera egotera pasatu da mallabitarra sei astean. Izan ere, Rezustak eta Zabaletak txapelketa jokatzeari uko egin izanaren ondorioz sartu zen txapelketan, Elezkanorekin batera.

Aurrez ere buruz buru ondo moldatzen zela erakutsia zuen arren (2019ko eta 2020ko Promozio finalak galdu zituen Darioren eta Arteagaren aurka), inor gutxik pentsatuko zuen Aitor egun dagoen egoeran ikusiko genuenik; urteko txapelik garrantzitsuena irabazteko azken pausoren faltan, alegia. Baina binakako txapelketako uraren gaineko aparretan jarraituz, eta



Inaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

Aitor Elordiren kirol lorpenak goresteari bezain bidezkoa deritzot nola egiten ari den baloratzeari

honek dakarren konfiantza psikologikoak lagunduta, momentu honetan edozeini irabazteko gai dela erakutsi du hilabeteotan. Horren erakusgarri da etziko finalean aurkari izango duen Altunaren kontra Eibarren jokatutako partida. Non 15-18 irabazten joan eta 22-18 galdu arren, estu hartu zuen azken urteotako pilotari onena.

Ezustekean aurrekarietako erreparaturik, bat-batean datorkit 2020an Jakak egindakoa gogora. Pronostikoak erabat hautsiz sartu zen finalean Urrutikoe txea eta Elezkanoren kanporatuta, aurten Elordik egin duen moduan, eta Altuna

bera garaitu zuen Bilboko finalean. Bien arteko antzekotasunak nabariak izanik, saihetsezina da txapela irabaztea posible duela sinestea, betiere, amezketarrak ustekabeko emaitzak ematea zenbat zailtzen duen ahaztu gabe.

Amaitzeko, Elordiren kirol lorpenak goresteari bezain bidezkoa deritzot nola egiten ari den baloratzeari. Oinak lurrean dituela bizi du kirol ibilbideko momenturik gozoena, noizbait olatu gabeko itsaso barean aritzea ere egokituko zaiola jakitun. Bada, egoera horri ere aurre egiteko baliabide berriak eskuratu dituela iruditzen zait; alde batetik, profesional mailan daraman urteetako esperientziari eta, bestetik, teknikoki, fisikoki zein psikologikoki egiten ari den lan emankorrari esker. Zorte on eta segi gozarazten, Aitor!



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmodurangesado.com
inmodurangesado@gmail.com

Fernando Uribe AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

ERDIALDEAN: 2 logela eta komuna. Guztiz berriztatua. Bizitzen sartzeko moduan. **165.000 € C.E.E=E**

MATIENA: 4 logela, eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. 14 m²-ko ganbara handia. **210.000 € C.E.E=E**

ANBOTO: 3 logela, komuna eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 190.000 €**

KALEBARRIA: 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela. Igogailua. **C.E.E=F 140.000 €**

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. **C.E.E=F 142.500 €**

IURRETA: Santa Maña: 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela. 15 m²-ko trastelekua. Aparkaleku pribatua. **C.E.E=F 130.000 €**

ZALDIBAR: 3 logela, komuna, sukaldia eta egongela handia. Terraza. Igogailua. Garajea. **C.E.E=F 157.000 €**

MATIENA: 2 logela, komuna, sukaldia handia. Igogailua. **C.E.E=F.129.000€**

ZALDIBAR: Berriztatua. 2 logela, komuna, sukaldia eta egongela. 2 terraza. **C.E.E=E 105.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

LANDAKO: (autobus geltokia) 102 m². 3 logela, 2 komun, sukaldia eta egongela. **350.000 € C.E.E=E**

ABADIÑO: 150m²-ko terraza. Erdi berria. garajea eta trastelekua. **C.E.E=E**

DURANGO: Familiabakarrekua. 4 logela eta 4 komun. 330 m². Lorategia. teraaza eta solariuma. **615.000 €**

BARRENKALEA: 62 m². Logela, sukaldia, egongela-jangela, despentsa eta komuna. **C.E.E=G**

SAN FRANZISKO: 3 logela. komuna, sukaldia balkoiarekin eta egongela. Ikuspegi ederrak. Eguzkitsua. Garaje itxia aukeran. **C.E.E=E 180.000 €**

MATIENA: 3 logela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan. **159.000 €. C.E.E=E**

ZALDIBAR: Alokairuan, erosteko aukerarekin. 80 m². Erdialdean. 2 logela, komuna, sukaldia eta egongela. Terraza. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=F 175.000 € / 650€**

ZALDIBAR: 95 m². 3 logela, 2 komun, sukaldia eta egongela. 2 terraza. garajea. **C.E.E=F 199.000 €**

ABADIÑO: 2 logela, 2 komun, sukaldia eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=E 190.000 €**

MARTXOAREN 8'KO: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldia, eskegitokia eta egongela. Balkoia. Garaje itxia. **C.E.E=E E. 318.000€**

FAUSTE BIDEA: 4 logela, komuna, sukaldia, egongela. Despentsa-trastelekua. Ganbara komunitarioa. Etxe soloak kanpora ematen du. Eguzkitsua. **C.E.E: G. 150.000€**

EZKURDI: 4 logela, 2 komun, sukaldia eta egongela handia. Garajea aukeran. **C.E.E=E 240.000 €.**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Herriko Gudarien kalea. 3 logela, egongela balkoiarekin, sukaldia, despentsa eta 2 komun. Garajea. Trastelekua. Ganbara.

DURANGO: Astepe auzunean. 3 logela, egongela, sukaldia, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta trastelekua. Argitsua. Pisu altua.

DURANGO: Antso Estegiz. Izugarritzko adosatua salgai. 3 logela eta 4 komun. Lorategia. Terraza. Txokoa. Ezin hobeia.

ABADIÑO

ABADIÑO: Iturritxo kalea. 3 logela, 2 komun, egongela-jangela, sukaldia eta despentsa. Ganbara. 2 garaje eta 2 trasteleku.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldia eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldia eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

IURRETA: Orozketa auzoa. Baserri erdia salgai. Ikuspegi zoragarria. 3.000 m²-ko lursailarekin. Durangotik oso gertu.

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politak.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarritzko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatuko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatua ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatuko.

//BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

www.inmodurangesado.com

DURANGO **35 m²**
1 logela

KALEBARRIA: 35 m². Egongela-sukaldia, logela eta komuna. Hirugarren solairua igogailurik gabe. Etxe osoak kanpora ematen du. Erdialdean kokatua. Ganbara. Gas naturala. Inbertsio moduan egokia. ITE-a orainsu pasatakoa.

79.000 € C.E.E: E

DURANGO **85 m²**
3 logela

ASKATASUN ETORBIDEA: Halla, sukaldia jantzia, 3 logela, komuna eta despentsa. Balkoi handia. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. ITE-a orainsu pasatakoa. Garajea aukeran + 15.000 €.

215.00 € C.E.E: E

DURANGO **69 m²**
2 logela

LANDAKO: 1.999. urtean eraikia. Egongela, sukaldia jantzia, eskegitokia eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde-mendebaldea). Argitsua. Herriko sarrera batetik gertu, zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobeia. Garajea eta ganbara.

278.000 € C.E.E: E

DURANGO **98,9 m²**
3 logela

ASKATASUN ETORBIDEA - ALLUITZ: 1.993. urtean eraikia. Egongela handia. sukaldia jantzia, 3 logela, 2 komun eta 2 despentsa. Balkoi itxia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ekialde-mendebalde-iparralde) Argitsua. Leku onean kokatua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Ezin hobeia. Ganbara eta garajea.

334.000 € C.E.E: Bidean
Garaje itxia aukeran + 65.000 €.

IURRETA **69 m²**
2 logela

ZUBIAURRE: Egongela, sukaldia jantzia, 2 logela, 2 komun eta galeria. Etxe erdiak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea/ Ipar-ekialdea) Argitsua. Zonalde berdeak eta zerbitzuguneak. Berriztatua. Egoera ezin hobean. ITE-a orainsu pasatutakoa.

186.700 € C.E.E: G

MATIENA

ERAIKUNTZA BERRIA: 91,05 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatuko.

254.900 €-tik aurrera

//DURANGO

ANTSO EZTEGIZ KALEA: 2 logela, sukaldia balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € / ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldia, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 €/ORAIN 298.000 € E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldia eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukaldia balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukaldia balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € / ORAIN 495.000 €**

//ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukaldia, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 350.000 E.E.Z=D**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukaldia, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 95.000€/ ORAIN 85.000€ E.E.Z=G**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeko baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukaldia, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

//GARAI

MOMOTIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeko lursailak. Aukera ezberdinak.

//IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldia, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

//IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldia, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

//OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukaldia, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

//ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukaldia, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

//GARAJEAK SALGAI /ALOKATZEKO

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

//LOKALAK SALGAI /ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.

Botikak

BARIKUA, 2 - 09:00-09:00

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 3 - 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONGO 22. - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 4 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 5 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 6 - 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 7 - 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 8 - 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, L
UIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA




Zorionak guztioi!

GOZATU GOZATEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
GoZatu Gozotegia
gozatugozotegia



Zorionak, **Txebis!** 65 urteik lan eitten ospatzie, ez dau gauza polittaurik, ezta?



Ekainaren 2an Zaldibarko **Irantzuk** urteak egin ditu. Zorionak bere semeen, senarraren eta gurasoen partez. Besarkada handi bat eta muxu pilo bat Errioxatik.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 14° / 25° ☁

ASTELEHENA ↓ 15° / 24° ☁

EGUAZTENA ↓ 16° / 28° ☁

DOMEKA ↓ 15° / 25° ☁

MARTITZENA ↓ 16° / 26° ☁

EGUENA ↓ 17° / 25° ☁

Eskelak



**Julio Aranguena
Aristi**

2023ko maiatzaren 28an hil zen,
61 urte zituela



"Euskal Herrian Euskaraz..."
Kantuen oihartzune heldu dok Iurretaturutik...

Hi barik ez dok bardñe izengo,
Julio, baña saiatuko gozak!

Iurretako lagunak.

ESKELAK

946 816 558 · anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.



"Aurreritziak apurtu baino gehiago, ikasi egin dut 'Abiapuntua' saioan"

Maider Zubiate elorriarrak ETB1eko 'Abiapuntua' saioan parte hartu du. Maitasun erduez, arrazakeriaz eta animalien baldintzarik bako maitasunaz hausnartzeko aukera izan du



Maider Zubiate Eguidazu

'Abiapuntua' saioan parte hartu du

ELORRIO | 1999

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Maider Zubiatek lagun baten bitartez izan zuen 'Abiapuntua' saiorako castingaren berri, eta birritan pentsatu barik aurkeztu zen; zertarako zen oso garbi ez bazuen ere, aitortu duenez. Elorriarrak aktore izatea du amets.

Zerk motibatu zintuen 'Abiapuntua' saioan parte hartzeko?

Euskal gazteriaren errepresentazio bat izango den gazteen bila zebiltzala azaldu ziguten, eta horregaz bat etorri nintekeela pentsatu nuen. Gainera, soziologia ikasketak izanda ekarpenen bat egin neza keela pentsatu nuen.

Zure ametsa betetzeko bitarteko lez ere ikusi zenuen, ezta?

Bai. Aktore izatea da nire ametsa eta hasita nago lehenengo urratsak ematen. Zenbait casting egin dut, eta film labur batzuetan parte hartu dut. Orain dirua aurrezten nabil, Madrilen aktore lez trebatzeko. Betidanik gura izan dut aktore izan, eta umetan antzerkia egindako naiz. Keira Knightley asko gustatzen zait eta Aitziber Garmendia itzela iruditzen zait. Interpretazioaren mundua oso konplikatu da, baina ahaleginduko naiz. Egia esan, 'Abiapuntua' saioan ez naiz aktore lez agertzen; ni neu agertzen naiz, naizen modukoa. Eta horrek hala-

ko errespetua ematen zidan. Baina esperientzia polita izan da. Oso lantalde jatorra eta giro ona topatu ditut, eta oso gustura egon naiz.

'Abiapuntua'-n ni neu agertzen naiz, naizen modukoa. Horrek halako errespetua ematen zidan, baina esperientzia polita izan da.

Maitasun erduak, arrazismoa eta animalien baldintzarik bako maitasuna. Hiru saio horietan parte hartu duzu. Apurtu duzu aurreritziarik?

Aurreritziak apurtu baino gehiago, ikasi egin dut. Animalien baldintzarik bako maitasunari buruzko saioan, ezagutzen ez nuen hainbat gauza ezagutu dut, ez nuen aurretik iritzi bat. Maitasun erduei buruz, bai, baditut aurreritziak. Baina oso bikote desberdinak azaldu dira, eta asko ikasi dut. Tentsoagoa izan zen arrazakeriari buruzko saioa. Oso gai mingarriak daude tartean, klasismoa ere hor dago. Kasu horretan, bai, apurtu ditut aurreritzi batzuk.

Ondo legoke noizbehinka ispilu baten aurrean ipintzea, ez norbere burua zigortzeko, inoiz pentsatu ez dugun gai horren inguruan hausnartzeko baino

Eraman duzu sorpresarik?

Pertsona lodiei buruz gazte batzuek botatako iritzi batzuek asko harritu naute, adibidez. Gai batzuk oso landuta genituela uste nuen, baina ez da horrela. Bestalde, aniztasun funtzionala zuten pertsona biren arteko hartu-emanak eta gurasoekin zuten hartu-emanak ere nahikoa harritu ninduen. Oso polita iruditu zitzaidan. Hartu-emanetan, sexuagaz, familian, lanean... zailtasun eta traba gehiago dituztela pentsatzen nuen, eta ez da horrela. Besteok ipintzen dizkiegu trabak.

Aurreritzi asko dugu?

Bai, eta ez dugu horietaz barbarik egiten. Berba eginez gero, pertsona desberdinak ezagutuz gero, baliteke aurreritzi horiek apurtzea. Ondo legoke noizbehinka ispilu baten aurrean ipintzea, ez norbere burua zigortzeko, inoiz pentsatu ez dugun gai horren inguruan hausnartzeko baino.

Baduzu buruan momentu berezirik?

Elorrioren, Euskadiko Laguntza Txakurren Taldean egindako 24 orduko boluntario lanak asko hunkitu ninduen. Lan itzela egiten dute eta asko gustatu zitzaidan taldea ezagutzea.

Lauhortza

Martin Loizate Sarrionandia



Agur (I)

Txikitari izan nituen hainbat tik: zebrabidean marra beltzak ez zapaltzearena, ikastolara bidean frantsesetako eskolaren hesiko bi zutaberik bat ukitzearena, begiekin kliskak egitearena, ez-tarria garbitzearena...

Halako batean, oroitzen dut, hasi zitzaidala jendea derrigor agurtu beharrarena; esan nahi dut maite nuen jendea -eta batez ere amamak- agurtu gabe ezin joatearena. Pentsatzen nuelako zerbait pasatuko balitzaie eta sekula gehiago ikusiko ez banitu pena handia emango lidakeela agur ondo esan ez izanak. Eta akordatzen naiz Landetan kanpinean aitak aittite hil zela esan zigunean gogora ekarri nuela nola agurtu nuen azkenengoz, eta horrek lasaitu ninduela.

Amaitzen den oro gaizki amaitzen dela, pixkanaka, eta gainontzean txarrera doala, hautsez estali arte, dio Calamarok krimen perfektuen kantuan, eta egia da kostatzen ari zitzaidala azkenengoetan zutabe hau idazten -parkamenak maketatzaileei ostegun goizetan bidaliriko testuengatik-. Eta zail omen da agurraren lezioa konprenitzen alde batek baietz eta besteak ezetz dioskunean, baina ez da nire hautuz izan despedidarena.

Idatzi dut Madalenako estazioko gizonaz, matematikari palestinarraz, Saharako elurraz. Idatzi dut nazi moztortu zinegotzietatik, gerezietatik eta amianto lainoetatik. Idatzi dut Nanni Balestrini edo Pessoa izan nahian. Eskerrik asko, Markel, Aritz, Jone eta gainontzeko langileoi leku hau uztearren; eta Ritxi, Ainhoa, Markel, Miren, Leire... astekaria eusteko zutabegintza lanean konplize izateagatik.

Agur, gure hizkuntzan, esan daitekeelako ailegeran eta joeraren. Beraz, agur, solemnitaterik handirik barik eta berbarengan anbiguotasun osoan.

SAN ROKE BARRIA DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka

Gimnasioa

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

KALERATZE prezio bereziak

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude Estás en tu casa www.sukia.com